

Ama izateagatik kaleratu dutela salatu duen emakumea babesteko elkarretaratzea egingo dute, bihar, Zornotzan • 6. orrialdea



2018ko apirilaren 13a | 16. urtea | 716. alea  
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

 **anboto**

TOKIKOM



**“Itzuliko azken etapetan onenekin nenbilela ikustea motibagarria da”**

Aurten onenen ligan dabil Mikel Bizkarra. Euskal Herriko Itzulian lehenengoz aritu da eta taldeak Espainiako Itzulian parte hartzeko gonbita jaso du aste honetan. Oizen, etxetik gertu, amaitzen den etapa begiz jota du mañariarrak. • 2-3

**“Txiki sentiarazten gaituen hori onartzeak indartu egiten gaitu”**

**Musika** | Plateruenean ekingo dio zapatuan bira berriari Doctor Deseok. Francis Diezek 'La Fuerza de la Fragilidad' lan berriaren nondik norakoak azaldu ditu. 16. orrialdea

ANDER CANALES



**Luzia Sagastasoloa andereñoaren bokazioa**

**Mallabia** | Mallabiko Irua-txeta etxean jaio zen Luzia Sagastasoloa eta errepublika garaian andereñoa izan zen Algortako ikastolan.

8. orrialdea







**Mikel Bizkarra**  
**Etxegibel**  
Euskadi Murias taldeko txirrindularia

**Mañaria | 1989**

## “Entrenamenduekin lortu ezin daitekeen maila eskaintzen dizu onenekin lehiatzeak”

Euskal Herriko Itzulian ez du izan gura zuen protagonismoa, baina onenen multzoan ibiltzeko kapaz zela sentitu du. Alpeetako Itzulian hamar onenetan sailkatzea du helburu

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

**Inork ez dio ezer erregalatu Mikel Bizkarrari. Euskadi Fundazioan zegoela, Euskaltelerako saltoa etorri zitekeenean, taldea desagertu egin zen. Hego Amerikako proiektu berri batera batu, baina engainu bat izan zen. Txirrindularitza uzteak pena ematen zion eta, pauso bat atzera emanda, afizionatuetan aritu zen urtebetez, harik eta Muriasek fitxatu zuen arte. Aurten, Euskadi Muriasekin, onenekin lehiatzen dabil.**

**Kataluniako eta Euskal Herriko Itzuliak zure lehenengo World Tour lasterketak izan dira. Zelakoa da onenen ligan aritzea?**

Lasterketa bietako erritmoa oso altua izan da. Katalunian, egia esanda, zur eta lur geratu nintzen: tentsio itzela, abiadura handia... World Tour mailako taldeekin eta txirrindulariekin aurretik ibilia nintzen, baina sekula ez World Tour mailako lasterketa batean.

Hau da, hemen mailarik goreneko taldeak ez dira lau edo bost, baizik eta denak. Eta lasterketa berean denak elkartzen direnean, asko igartzen da abiaduran.

**Katalunian ihes eginda ibili zinen ia egunero, ausart eta lotsabako.**

Batzuetan gauzak ia gura barik irteten dira. Behin saiatu, eta eguneko ihesaldia hartzen duzu. Beste batzuetan, saiatu eta saiatu ibili arren, ez duzu hartzen, fisikoki indartsuago egonda ere. Bai, Katalunian nahiko gustura ibili nintzen, baina ez nengoen zirudien bezain ondo. Hau da, sarritan telebistan edo bide bazterrean ikusten den lasterketa ez da norberak barrutik bizi duena. Euskal Herriko Itzulian hamar bider hobeto nengoen, baina ez naiz horrenbeste agertu. Nik badakit Euskal Herriko Itzulian maila hobean nengoen.

**Ondo egotea bakarrik ez da nahikoa.** Ez. Gura izatea ez da nahikoa ihesaldi bat hartzeko. Tropelean egu-

neko ihesaldia hartu gura duten 130 txirrindulari egoten dira. Gerra itzela egoten da. Asmatzea, behar den momentuan hor egotea, ez da erraza. Kataluniakoa ikusita, erraza ematen du, ia egunero hartzen nuelako, baina zorte puntu hori izan nuen. Hemen, aldiz, hobeto egonda ez naiz izan gura nuen bezain protagonista.

**Onenekin zabiltzanean, indarrak hobeto neurtzen eta erasoaldiak hobeto aukeratzen ikasi beharra dago?**

Bai. Batzuetan irteeratik ihesaldien bila hasten zara. Kilometroak aurrera doaz, ez duzu lortu eta helden da une bat erritmoa oso handia dena. Orduan ezin da ihesaldirik sortu. Eta ez hori bakarrik. Sarritan ibilbidea gogortu egiten da, eta orduan, hain erritmo bizi, nahikoa lan izaten da tropelari jarraitzen ere. Beraz, bai, erregulatzen jakin eta ikasi beharra dago. Maila gutxiagoko lasterketetan bost erasoaldi jarraian jo ditza-

kezu, baina World Tourrekoetan erasoaldi bat joz gero, hurrengo hamar kilometroak errekupeatzeko behar dituzu. Eta, jakina, sarritan nahiko lan izaten duzu tropeleko erritmoari eusten.

**Euskal Herriko Itzulian Katalunian baino maila handiagoko txirrindulariak egon dira?**

Euskal Herriko Itzulian ibilbidea aldapatsua eta gogorra izan da. Niri gehiago gustatzen zait horrelako ibilbidea, baina, aldi berean, ibilbidea zelakoa den jakinda, taldeek eskalatzailerak onak ekarri dituzte, edo gutxienez aldapan gora ondo moldatzen direnak. Denbora batean mendate bat topera igotzen zabiltzanean pentsatzen duzu taldetxo bat bakarrik geratuko dela aurrean, baina atzera begiratu eta hantxe daude denak; gutxi batzuk baino ez dira geratu atzean.

“**Euskal Herriko Itzuliko azken etapetan onenekin nenbilela ikustea motibagarria da**”

**Elkarrizketa batean aipatu zenuen Euskal Herriko Itzuliak erakutsiko zizula onenekin zauden, eurengandik gertu zauden edo oraindik koska bat dagoen. Zer ondorio ateratu duzu? Egunak aurrera joan ahala, gero eta hobeto nengoa ikusi dut.**

Lehenengo egunetan urruti samar nengoa sumatzen nuen, baina azken egun bietan oso gustura ikusi dut neure burua. Tropela apurtzen zenean, asko sufritzen nuen, normala den moduan, baina onenekin nengoen. Ondoan nortzuk nituen ikusi eta txarrenak nik baino ehun bider gehiago kobratzen duela ikusten nuen. Azken egunetan gorputza errekupeatu egiten zela eta onenengandik gertu nengoa ikustea motibagarria da.

**Onenengana heltzeko koska hori zelan igo daiteke?**

Denok ez gara berdinak. Entrenamendu berdinekin batzuek beste batzuek baino maila handiagoa hartzen dute normalean. Onenekin lehiatzea da gakoa. World Tourreko lasterketa batean ibili ostean, etxera etorri, atsedean hartu, errekupeatu eta beste erritmo bat duzula ohartzen zara. Entrenamenduekin ematen ez duten maila eskaintzen dizu onenekin lehiatzeak. Entrenamenduak beharrezkoak dira, jakina, baina onenen mailara heltzeko, eurekin lehiatzen jardun behar duzu.

**Edozelan ere, gustura zaude Itzulian eskainitako errendimenduagaz?**

Oro har, bai. Azken egunetan birus bat izan nuen tripetan, eta badut horren pena. Azken etapa zen, gogorrena, Arraten amaitzen zena. Onenekin nenbilen eta emaitza on bat lortzeko aukera nuen, baina osasunak ez zidan lagundu.



**Euskadi Murias taldeak #GureTaldea hastag-a dabil sare soziale-tako mezu denetan. Euskaldunak euskal taldeagaz lotzeko modua da. Itzulian sumatu duzu zaleek euskal ordezkari moduan hartzen zaituztetela?**

“**Telebistak ez du islatzen barrutik bizi duguna; topera goaz denok eta tentsio itzela dago tropelean**”

Egia esanda, bai. Jende asko etorri zaigu etapak hasi aurretik edo amaitu ostean gu animatzera. Jendeak ikusi du talde indartsua osatu dugula, protagonista izaten ari garela, etapak irabaztetik gertu izan garela... Zaleak gugaz identifikatu direla sentitu dugu. Euskal Herriko Itzulian asko animatu naute, sarritan nire izenetik, eta ikaragarria izan da. Euskal zaleen arteko pasillo batetik igarotzeak hildakoak ere berpizten ditu. Hanketako minagaz egonda ere, pasillo horretan sartzean hegan moduan zoaz. Hunkigarria izan da.

**Zu igotzaile peto-petoea zara. Baina onenen mailan, ordekan ere bizi-bizia izatean da erritmoa. Behar-bada oraindik eremu horretan zailtzea falta zaizu?**

Orain dela urte batzuk baietz erantzungo nizun, baina gaur ezetz diotsut. Hau da, jende askok galdetzen dit: “Zergatik ez zara hobeto kokatzen mendateak hasi aurretixoe-tan?”. Edo esaten didate: “Behar-bada lautadetan gehiago entrenatu beharko zenuke”. Baina, gero, nigaz bizikletan etorri eta lautadetan ezin didate jarraitu. Ez naiz sekula izango Vasil Kiryienka edo Thomas de Gendt bat. Nik nahikoa dut erruberan sartu eta jarraitzeagaz. Ez dut uste erritmo hori hartzea falta zaidanik. Kontua da erritmo hori ez dudala sekula hartuko. Bakoitzak bere gorputza du. Professionaletara igo nintzenez, lautadan indar gehiegi gastatzen nuen eta mendateetara hilda heltzen nintzen. Orain, ez. Orain mendate baten hasierara atze samarrean kokatuta heltzen banaiz, kilometro horiek zoramena direlako da. 150 txirrindularik lehenengo tokira heldu gura dute. Telebistak ez du islatzen barruan bizi duguna. Tentsio itzela egoten da, denak topera. Kanpotik begiratuta, benetan dena baino errazagoa ematen du.

**Andaluziako Itzulia gogoratu gura ditzut, denboraldiaren hasieran. Mendiko etapa batean, Chris Froomegaz nor baino nor gehiago aritu zinen.**

Azken mendatearen hasieran atzean geratu zen. Bere erritmoa hartu zuen. Ni aurrean nindoan, hamarrek taldean. Froome-

akordurik ere ez nuen. Kilometro baten faltan larri nindoan, taldearen atzeko muturrean, eta, orduan, bat-batean, Froome ondolik igaro zitzaidan. Ahalegin bat egin nuen eta ez zidan askorik ihes egin. Zazpigarren eta zortzigarren helmugaratu ginen, elkarrengandik zazpi segundora.

**Froomegaz orpoz orpo amaitzea bada zeozer!**

Tira, aurretik hobeto, ez? (Barrez)  
**Alpeetako Itzulia duzu hurrengo erronka, datorren astean. Mendate luze eta gogorak ditu. Aproposagoa da zure gaitasunetarako?**

Bai, normalean gurago ditut mendate luzeak. Nik ez dut laburretan behar den esplosibitate hori. Baina erritmo konstante bat ondo mantentzen dut eta mendate luzeetan dohain hori behar da. Agian ambizio handikoa emango du, baina nire helburua aurreneko hamarren artean geratzea da. Onenak doaz eta gaitza izango da, jakina, baina ondo errekupeztatzen banaiz, hor inguruan egon naitekeela uste dut.

**Espainiako Itzulian parte hartzeko gonbita jaso duzue astean. Oizen amaitzen den etapa horregaz ametsetan egiten duzu?**

Bai, bai. Beti izan dut hiru asteko itzuli bat lehiatzeko ilusioa eta, hori gutxi balitz, zer eta etapa bat etxe alboan amaitzen da. Askotan

“**Euskal zaleen arteko pasillo batetik igarotzeak hildakoak ere berpizten ditu. Hunkigarria izan da**”

“**Une txarrak igaro dituzunean, gehiago baloratzen dira momentu onak datozenean**”

igo dudana eta asko gustatzen zaidan mendatea da. Berez Munitibarrek aldetik igoko da eta hortik oso gutxitan igo dut, baina, hala ere, amaiera bera da. Jende asko eta giro itzela egongo da, eta etapa hori amets bat da niretzat. Ez dakit zelan irtengo den, ez dakit aurrean egoteko modurik izango dugun, baina saiatuko gara.

**Begiratu dezagun atzera. Txikitan pilotan eta futbolekin ere aritzen ez ziren. Zergatik aukeratu zenuen txirrindularitza?**

Bizikleta asko gustatzen zitzaidan, baina praktikatu baino, ikusi egiten nuen. Egoitz Garcia lehen-gusuak lasterketa asko irabazten zituen gartzetan. Anaiak ere [Gorka



Mikel Bizkarra, taldetik tiraka lasterketa batean. Photo Gomez Sport



Kataluniako Itzulian, mendiko sailkapeneko elastikoa jantzita.

Bizkarra], hasi eta berehala, lasterketa bat irabazi zuen. Euren ibilbidea jarraitzen nuen. Ondoren, neu hasi nintzen. Gogoan dut lodi nengoela. Orain baino hamar zentimetro gutxiago eta hamar kilo gehiago nituen. Imajinatu. Begira, orduan errodadorea nintzen!  
**Euskadi Fundazioa, ondoren Hego Amerikako engainua eta afizionatuetara jaitsi beharra... Inork ez dizu ezer erregalatu.**

Zelako gorabeherak! Lehen urteak onak izan ziren Orbean eta Euskadi Fundazioan. Euskaltelen filialean gauzak ondo eginez gero, gora pasatzeko aukera hori hor zegoen.

Aukera heldu zitekeenean, Euskaltel desagertu egin zen. Euskadi Fundazioa ere desagertu behar zela zirudien. Pino Road Hego Amerikako talde berri batera batzea proposatu zidaten, baina iruzurra izan zen. Otsailean, denboraldi hasieran, talderik barik geratu nintzen. Txirrindularitza horrela utzi beharrak pena ematen zidan. Gomurrek afizionatuetan aritzeko aukera eskaini zidan eta oso gustura aritu nintzen eurekin. Esperientzia nuen eta afizionatuetako egutegirik onena izan nuen. Murias sortu zenez, Jon Odriozolak taldean hartu ninduen eta, harrez-

kero, taldeagaz batera gorantz egin dugu. Orain asentatu egin garela dirudi, bai taldea eta baita neu ere. Une txarrak igaro dituzunean, gehiago baloratzen dira momentu onak datozenean.

**Mañarian, etxe alboan, Urkiola mendatea izanda, imajinatzen dut entrenamenduetan gehien igo duzun mendatea izango dela.**

Ba, ez. Etxetik irten eta berehala, hotz-hotzean, horrelako mendate bat igotzeak ez du zentzu handirik. Durangorantz irteten naiz. Inguruko beste mendate denak mila bider igoko nituen, baina Urkiola, gutxitan.



## Gerrarako armak Euskal Herritik ere bidaltzen direla salatuko dute

**DURANGO • M.O.**

Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak antolatuta, gerrei buruzko berbaldia egongo da datorren eguaztenean, hilak 18, Plateruena kafe antzokian, 19:00etan hasita. *Gerra hemen hasten da* batzordeko Luis Arbide eta Alberto Estefania kideek emango dute hitzaldia. Bilboko portuan, Saudi Arabiara bidaliko diren armak ontziratzen direla salatu dute, eta horri buruz zenbait informazio eskainiko dute. Azkenaldian hedabideetan agertu izan den gertakari bat da.

Horrez gainera, gerraren aurkako eragozpen fiskalari buruz ere berba egingo dute. Iaz, adibidez, praktika honen bidez 100.000 euro inguru desbideratu ziren ekintza sozialetara.

## ‘Uda Topera’ programan parte hartzeko aukera dute ume eta gaztetxoek

**DURANGO • M.Z.**

Herriko gazteenek uda garaian joko, tailer eta bestelako jardueraz gozatzeko helburuagaz, Durangoko Udalak *Uda Topera* programaren edizio berri bat antolatu du 3 eta 14 urte bitarteko ume eta gazteentzat. Izena emateko epea apirilaren 17ra

**Izena emateko epea  
apirilaren 17ra arte  
dago martxan; zozketa  
18an egingo da**

arte dago martxan; zozketa 18an egingo da, eta emaitzak Pionondo etxean, informazio puntuetan eta udalaren webgunean argitaratuko dituzte.



Oarbeaskoa eta Bastegieta, Mikeldi tabernako barraren atzean; azaroaren 22an ekin zioten tabernako negozioari.

## ‘Brunch’: Durangon fama hartzen dabilen otordu berria, Ingalaterrako tradizio gastronomikotik ekarria

Mikeldi tabernan domekero eskaintzen dute gosariaren eta bazkariaren arteko nahasketa den otordua

**DURANGO • MARKELONAINDIA**

Armosua, bazkaria, askaria eta aforia dira gure ohiturazko otorduek. Baina, azkenaldian, aukera berri bat fama hartzen hasi da Durangon: *Bruncha*. Kalebarriko Mikeldi tabernan eskaintzen dute domekero, eta zapatuetan hilean behin ere bai. Goiz erdian egin arren, ez da gosari bat, ezta bazkari bat ere. Bien arteko zerbait da, *breakfast* (gosaria ingelesez) eta *lunch* (bazkaria) berben baturatik datorrena. Izan ere, Ingalaterrako tradizio gastronomikotik datorren otordua da. Hauxe da Mikeldiko *brunch*-rako plana: 11:00etatik 13:00etara

bitartean, eta giro lasaian, gazitik eta gozotik aukera anitza duen *buffet* bat: zukuak, ogi ezberdinen sorta, kafea, salda, arrautzak, hirugiharra, nahaskiak, etxeko pastelak, gofrea txokolategaz...

**Mikel Bastegieta:  
“Zerbait desberdina  
eskaintzeko gogo  
geneukan”**

Mikel Bastegietak eta Oier Oarbeaskoak –Momotxo tabernan urte askoan ibilitako familiakoak– azaro



Jatekoa bi mahaitan ipintzen dute, eta handik hartu dezake jendeak.

amaieran zabaldu zuten taberna. “Zerbait desberdina eskaintzeko gogo geneukan. Entzun genuen *Brunch*ak zeudela Bilbon, jendearen gustukoak zirela, eta probatzen hasi ginen. Bilbora joan ginen, Madriler...”, esplikatu du Bastegietak. Durangon, Napozt tabernan ere egin izan dute iraganean.

**Harrera ona**

“Jendea oso pozik irtetzen da, eta batzuek errepikatu ere egin dute”, Bastegietaren arabera. Jendea

gustura egotea da euren asmoa. Oarbeaskoak dioenez. “13:00ak arte lasai-lasai egon daiteke, eta gura duenak gero tabernako zerbitzua-gaz jarraitzeko aukera du”, esan du.

Tabernaren barnekaldean duten jangelan eskaintzen dute *Brunch* zerbitzua, 20-22 pertsonarentzat gehienez, eta lekua erreserbatu egin behar da. Ekainera bitartean, seitik gorako taldeentzat ez dute lekurik dagoeneko, jateko ohitura berriak harrera ona eduki duen seinale.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko apirilaren 13a  
16. urtea - 716. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Durangoko kutsadura akustikoa murriztu gura dute, ekintza plan bat adostuta

Udalak baldintza akustikoak ezarri gura ditu jaietan, obretan eta hondakinen bilketan; herritar batzuk euren kabuz batzartzen hasi dira, ekarpenak egiteko asmoz

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Durangok tamaina handia du inguruko herrieekin alderatuta. Eta biziagoa da: trafikoa, komertzioak, zerbitzuak, industria, aisialdia... Aktibitate horiek albo-kalteak dakartzate, eta zarata da euretako bat. 2016an Zarataren Mapa osatu zuen udalak, 10.000 biztanletik gorako udalerriak zeregin horretara behartuta daudelako. Bada, orokorrean herri lasaia dela ondorioztatu arren, kutsadura akustikoa murrizteko ekintza plana sortzea erabaki

zuen udalak; zirriborroa landu eta herritarren partaidetza foro batean aurkeztu dute. Orain, azken ukituak eman, Jasangarrtasun Batzordetik pasatu eta osoko bilkuran onartu beharko dute.

Zarataren Mapak emandako emaitzen artean, udalak nabarmendu zuen antzeko tamainako herrietan baino kutsadura akustiko gutxiago dagoela Durangon, eta "gune lasai asko" daudela. Sortzen den zaratari begiratuta, gehiena trafikotik datorrela dio txostenak. Gaueko aisialdia ere neurtu zuten, eta asteburu batzuetan "kalitate helburuetatik harago doazen soinu-mailak" jasotzen direla ondorioztatu zuten. Kutsadura horrek durangarren %4ri eragiten die.

**Udalak nabarmendu zuen antzeko tamainako herrietan baino kutsadura akustiko gutxiago dagoela**

**Auzotar batzuk euren aldetik batzartzen hasi dira, udalaren jarrera "pasiboa" dela iritzita**

**Ekintzak zehazten**

Zirriborroa osoko bilkuran onartuz gero, 2022ra arteko indarraldia edukiko du. Esaterako, jai eta ekitaldietan baldintza akustikoak ezartzea da aurreikusitako ekintza bat. Hondakinen bilketa eta lore-



Durango orokorrean herri lasaia dela ondorioztatu zuen Zarataren Mapak 2016an.

zaintza kontratuak berritzaileekin, zarata zaintzeko baldintzak ipiniko dituzte, eta gauza bera gertatuko da bideen eta eraikuntzen obretan.

**Kaltetuak, batzen**

Kaltetutako auzotar batzuk euren aldetik batzartzen hasi dira, udalaren jarrera "pasiboa" dela iritzita. "Ez dirudi ekarpenak serio hartzen dabilzanik", diote. Eguaztenean egin zuten lehen batzarra, arazoan

**Asteburuko zarategatik kezkatuta dauden Kalebarriko bizilagunak daude taldean**

zerrendak osatu eta balizko soluzioak instituzioari helarazteko. Asteburuetako zarategatik kezkatuta dauden Kalebarriko bizilagun batzuk daude taldean, besteak beste. Euren kalean zarata neurketa

batzuk egitea eskatuko diote udalari, batzarrean adostu eta gero. Bestalde, San Fausto auzoan enpresa batzuen ondoan bizi direnak ere bada taldeko partaide; enpresetatik datozen zarategatik sarritan kezkatuta dira udalean, eta neurriak hartu izan direla esan arren, oraindik ere kezu dira bizilagunak. Kexak edo ideiak dituzten herritarrei parte hartzeko dei egin diete, Facebooken bidez kontaktua eginda.

## 100 eurora arteko 40 erosketa doan zozkatuko dituzte merkatariek, Durango Txartelaren kanpaina berrian

Gaur egun 1.500 herritarrek darabilte Durango Txartela, eta urtean 9.000 operazio egiten dituzte beragaz; gainerako durangarrei ere txartela ateratzeko gonbita egin diete, herriko komertzioari bultzada emateko ikuspegia duelako



Martitzeneko prentsaurrekoan, Ruben Saenz de Buruaga, Aitziber Irigoras, eta Dendak Bai elkarteak Alex Palacios eta Miren Garrastazu.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Dendak Bai elkarteak merkatariek 100 euro arteko 40 erosketa doan zozkatuko dituzte apirilaren 16tik 30era bitartean, Durango Txartelaren erabilpena sustatzeko kanpaina berrian. Fidelizazioa lortzeko asmoz sortu zuten merkatariek Durango txartela, 2009an. Trukean erosleei deskontuak eta promozioak eskaintzen dizkiete, eta udalak eta Nafarroako Rural Kutxak laguntzen dute ekimenean. Martitzenean prentsaurrekoa eman zuten, eta txartelaren irudi berria aurkeztu zuten bide batez.

Durangoko 96 komertzio daude atxikita kanpainara. 1.500 herritarrek darabilte txartela, eta urtean 9.000 operazio inguru egiten dituzte beragaz. Txartel hori hartu gura

dituzten Nafarroako Rural Kutxako bulegoetan edota Dendak Bairen egoitzan eskatu dezakete, doan.

**Maiatzean, deskontua**

Urtean zehar opariak eta zozketak egiten dituzte, eta epe batzuetan %5eko deskontua eskaini ere bai. Hain zuzen, horixe gertatuko da maiatzeko bigarren hamabostal-

**Urtean zehar opariak eta zozketak egiten dituzte, eta epe batzuetan deskontuak ere bai**

dian, esaterako. Kanpaina hori izan ohi da arreata gehien lortzen duena, Nafarroako Rural Kutxako Ruben Saenz de Buruagaren esanetan.

Aitziber Irigoras alkateak ere babesa erakutsi zion ekimenari prentsaurrekoan parte hartuta, eta durangarrak txartela erabiltzera animatu gura izan zituen. Herriko komertzioei laguntzeko tresna dela uste du udalak.



## Inyektametal zigortuta, langile batenganako "jarrera bidegabeagatik"

ABADIÑO • A.M.

Bilboko 5. epaitegiaren epaiaren arabera, Abadiñoko enpresaren jarrera "bidegabea" eta "neurritz kanpoko" izan da zigortutako langile batenganako. ELA sindikatuak adierazi duenez, "normalizatuta" dagoen egoera bat egiaztatzen du epaiak. "Enpresarentzat ez da larria segurtasun neurriak ez betetzea. Gu gure segurtasuna negoziatzeko gertu ez egotea da larria CIE Inyektametalentzat. Inposatzen dituzten erritmo eta lan egiteko moduak ikusita, ez dute gure osasuna kontuan hartzen", salatu du ohar batean sindikatuak. Izan ere, epaiaren arabera, enpresak langile-komiteagaz akordio batera iristera baldintzatzen du zigorra.

## Jai batzordea indartu dute abuztuan Andra Mari jaiak antolatzeko

MAÑARÍA • JONE GUENETXEA

Mañariko jai batzordea osatzen zuten 4 lagunek deialdia zabaldu zuten, eta jaiak antolatzeko herritarren inplikazioa behar zutela azaldu zuten. Deia erantzunez, 12-14 lagun batu ziren jai batzordearen bilerara. "Batez ere gazteak animatu dira, baita guraso pare bat ere", azaldu du Ainhoa Uribarri jai batzordeko kideak. Dagoeneko hasi dira jaiak antolatzen. Ideia berriak ere mahai gainean dituztela aurreratu dute.

## Herri batzarra egingo dute eguenean, gaztelekuagaz zer egin pentsatzeko

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Gaztelekuari beste erabilera batzuk emateko eskaera egin izan dute herritarrek Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) harira egindako batzarren batean. Ildo horretatik, udalak beren-beregi gai horri buruzko herri batzarra egitea erabaki du. Datorren asteko eguenean, 19:00etan, izango da batzarra, Izurtzako udaletxe udalbatzar aretoan. Gura duten herritar denak bertaratuta daitezke beren iritzia eta ikuspuntua ematera.

# Enpresa batek emakume bat ama izateagatik kaleratu gura izatea salatu du LAB sindikatuak

Kaleratzearen inguruko epaiketa martitzenean egin zuten; Talde Feministak elkarretaratzera deitu du, bihar, Zornotzan

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Zornotzako Abrasivos Texajax enpresak emakume bat "ama izatearren" kaleratu gura izatea salatu du LAB sindikatuak. Martitzen goizean, kaleratzearen inguruko epaiketa egin zuten Bilbon. Zalao Ibeas de la Cruz LABeko idazkaritza feministako kideak azaldu duenez, emakumea ama izan ostean lanera itzultzera zihoanean, enpresak kalte-ordaina ordainduta kaleratzea proposatu zion. Bere lanpostuan gizon bat zegoela eta berarengan konfiantza galdu zutela esan ziotela gaineratu du LABeko ordezkariak. "Enpresak ez zuela kontziliazio neurriak hartu gura, eta kalte-ordainagaz kaleratzea proposatu zioten", esan du. Langileak bere lanpostua mantendu gura zuela erantzun zela azpimarratu du LABek, eta argi gelditzen dela "ama izateagatik" kaleratu



Martitzenean kontzentrazioa egin zuen LABek Bilboko epaitegien aurrean.

**LAB: "7 urtean lanean ez du arazorik izan; beraz, oinarrian ama izatea da kaleratzearen arrazoia"**

gura dutela. "Zazpi urtean lanean ez du inolako arazorik izan; beraz, oinarrian ama izatea da kaleratzearen arrazoia".

Mobilizazioa, bihar

Zornotzako Talde Feministak emakume kaleratua babesteko elkarretaratzera deitu du, biharko, 12:00etan, herriko Udaletxe plazan. "Horrelakorik berriro gerta ez dadin ezinbestekoa da kasu ho-

**LAB: "Lanera itzultzean enpresak kalte-ordaina ordainduta kaleratzea proposatu zion"**

nen aurrean erantzun masibo bat ematea", dio Talde Feministak. Gaineratu dutenez, "egoera hau ez da kasu isolatu bat. Hau guztia emakumeok sistematikoki zapaltzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkalaren beste adibide bat baino ez da".

## Helburu sozialak dituen banku etikoekin elkarlanean hasiko da Zornotzako Udala

Banku etikoekin lanean hastearen aldeko udal adierazpena irakurri dute udalbatzarrean

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Banku etikoekin elkarlanean hasiko da Zornotzako udala. Bide hori hartzearen alde egiten duen udal adierazpena irakurri zuten azken udalbatzarrean alderdi guztien babesagaz.

Ohiko finantza erakundeek lanerako darabilten ildo nagusia "merkatuen diktadura" dela jasotzen du adierazpenak. Etxegabeteek eragiten duten "bidegabeberia larria eta iraunkorra", giza eskubideak "urratzen" dituzten

arloetan inbertitzea, etxebizitzekin "espekulaztea" eta armagintza industriagaz "harreman estuak" izatea dira udalbatzarrak gaitzes-ten dituen jokabide batzuk.

Egoera horren aurrean, finantza arloa ulertzeko bestelako adieraz-

penak sortzen ari direla jasotzen du EAJk, EH Bilduk, Hiri Ekimenak eta PSE-EEk babesten duten adierazpenak. "Baliabideak gizarte ongizaterako bideratzen dira". Finantza adierazpen berri horietako bat Fiare dela diote. "Banka etiko, herritar eta kooperatiboaren aldeko" proiektu moduan definitzen

**Banku etikoetan baliabideak "gizarte ongizaterako" bideratzen direla dio adierazpenak**

**"Urratsak eman behar dira eta banka etikoaren aldeko apustua egin beharra dago"**

dute, eta horrelako adibideen "aldeko apustua" egin behar dela diote. Horrela, beste ohiko bankuekin bakarrik ez, Zornotzako Udalak banka etikoekin ere lanean hasteko konpromisoa hartu dute adierazpenagaz.



Martxoaren amaieran Zornotzan egindako azken udalbatzarreko irudia.





Hango familiekin hartu-emanak sendotu dituzte azken urteetan.



Aurten bosgarrenez egon da errefuxiatuen kanpamentuan.

## “Kanpamentuetako umeei gaztelaniazko komunikazio baliabideak irakastea da helburua”

Etxebarriko elkarte batek hezkuntza proiektu bat garatzen du Saharako kanpamentuetan, eta hango kidea da Ane Elordi

### ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

**Ane Elordi zornotzarra hainbat bider izan da Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuan, Etxebarriko Munduaz Blai Elkarteagaz. Azkeneko, Aste Santuko egunetan. Elkarteak hezkuntza arloko programa bat garatzen du han, eta horri jarraipena egin diote.**

### Zertan jardun duzue Tindufen?

Gure proiektu nagusia hezkuntza arlokoa da. Uda igarotzera etortzen diren umeei hizkuntza arloko

gabeziak zituztela ikusi genuen. Eskolan bosgarren edo seigarren mailatik aurrera hasten dira gaztelania ikasten, eta honantza laugarren mailatik aurrera etorri daitezke. Beraz, 10 urteko umeen eta nagusien arteko komunikazioan arazo asko daude. Gabezia horretatik abiatuta, metodologia bat prestatu dugu bertako gaztelaniazko irakasleentzat, eskola orduetatik kanpo asteen birritan ordubeteko klaseak eman ditzaten. Umeei gutxienerako komunikazio baliabideak irakastea da

helburua. 2016an hasi ginen hango irakasleei formakuntza irakasten, eta orain jarraipena egiten dugu. Klaseetan egon gara eta umeei ikasi dutela ikusi dugu, espero genuena baino dezente hobeto ikasi ere.

“**Klaseetan egon gara eta ikasi dutela ikusi dugu, espero genuena baino gehiago ikasi ere**”

### Zenbat eskolatan diharduzue?

Eskola bitan, eta beste hirutara zabaltea itxaroten dugu. Gu Smara-ko errefuxiatuen eremuan egon gara. Han sei eskola daude; beraz, ia denetara helduko ginatke. Eskola bakoitzean 75 bat gaztetxo dabilza. **2013an hara lehenengoz joan zinean, zer inpresio eragin zizun han bizi duten egoerak?**

43 urte daramatzate errefuxiatuen kanpamentuetan. Batzuek hori baino ez dute ezagutu. Han egotera ohitu dira, baina kontua da hura ez

dela beraien tokia. Azken urteetan egoera egonkortu egin dela esango nuke.

### Hainbeste bider joanda, hango familiekin hartu-emanak sortu dituzue?

Gu beti familia beraren etxera joaten gara, eta harreman oso estua dugu. Gure gurasoak eta neba-arrebak balira modukoa da. Oso ondo hartzen gaituzte, etxekoak bagina moduan.

### Datorren urtean itzultzeko gogoz?

Gure benetako nahia da bertara berriro joan behar ez izatea; azken batean, errefuxiatuen kanpamentuak direlako. Euren lurraldean gura ditugu eta ez errefuxiatuen kanpamentuetan. Zoritzarrez, ez da egoera konpontzeko aurrerapausorik nabaritzen eta ematen du hurrengo urteetan ere itzuli egin beharko dugula.

## San Pedro eta Santa Isabel jaietako kartel lehiaketa martxan da

Apirilaren 20an amaituko da lanak aurkezteko epea

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzen dituen kartela aukeratzeko lehiaketa jarri du martxan. Urtero legez, adin guztietako herritarrek parte

hartu ahal izango dute lehiaketan, banaka zein taldeka.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 20an amaituko da, 20:00etan. Kartelak liburutegian utzi beharko dira.

## Atxondoko jubilatuen taberna hartzeko lehiaketa martxan da

Proposamenak apirilaren 20rako aurkeztuko beharko dira

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak lehiaketara atera du jubilatuen tabernaren ustiapena. Udalak jakitera eman duenez, jubilatuen tabernako kontratua urte birako izango da eta,

esleipendunak hala eskatzen badu, luzapena jaso dezake. Lizitazioaren prezioa 600 eurokoa da, urteko.

Bestalde, jubilatuen tabernako edariei ezarri beharreko tarifak jendaurrean bistan egon beharko

direla eta jubilatuentzat prezio bat eta gainontzekoentzat beste bat egon beharko dela jakitera eman dute. Horrez gain, esleipendunak taberna asteen sei egunetan zabaldu beharko duela adierazi dute, 12:00etatik 21:00etara.

Oinarriak asteen argitaratu dituzte Bizkaiko Agintaritzaren Aldizkarian, eta apirilaren 20ra arte dago epea proposamenak eta dokumentazioa aurkezteko, udaltxean.

**hitz** **#salduenak**  
liburudenda  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**EUSKLABO ALAIK**  
Asisko Urmeneta  
Gureberriak

**NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO**  
Kattalina Miner  
Elkar

**BIHOTZ HANDIEGIA**  
Eider Rodriguez  
Susar

**CERAMICAS MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Bulegorako  
zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



# Luzia Sagastasoloa, hil arte bere bokazioari eutsi gura izan zion errepublika garaiko andereñoa

Mallabiko Iruatxeta etxean jaio zen Luzia Sagastasoloa eta errepublika garaian andereñoa izan zen Algortako ikastolan



Gasteizko Vedruna karmelitetan sartu zen moja.



Irakaskuntza izan zuen bokazio nagusia

## MALLABIA • AITZIBER BASAURI

“Bizi bitartean, bokazio nagusi zuen irakaskuntzari jarraitu zion ekintzaile handia”. Hala deskribatu du Luzia Sagastasoloa (Mallabia, 1911) Mila Salterain idazleak. Abadiñarrak haren bizitza ikertu du, Agurtza Aldekoaren, Juan Gallastegiren, Aurora Irazolaren, eta Ourenseko Santa Joaquina Vedruna Ordenaren eta Balmori ahizparen laguntzagaz.

Mallabiko Iruatxeta etxean jaio zen Sagastasoloa, eta Bilboko Tereesianetan magisteritza ikasi ostean, andereñoa izan zen Algortan. Basagoiti etorbidean zegoen ikastolan erakutsi zuen, errepublikaren kontrako estatu kolpeak hasitako gerra

zibila sartu arte. Bihar, apirilak 14, 87 urte beteko dira Errepublikaldarrakatu zela. Gerra zibila sartuta, ikasle batzuk hartu eta Bordele ingurura jo zuen Sagastasoloak, Mungiako Josefina Torrontegigaz, 1936an. Han errefuxiatu ziren.

## Gerra zibila sartuta, ikasle batzuk hartu eta Bordele ingurura jo zuen Josefina Torrontegigaz

Gerra amaitu aurretik itzuli zen Espainiara, oraindik errepublikarra zen Madrilera, eta milizianoen laguntza izan omen zuen. Hala ere,

kargugabetu egin zuten —ikastolan aritu zelako, eta eskola-umeekin Bordelera ihes egin zuelako— ezin izan zuen irakaskuntzalan egin. Titulurik barik joan zen Santiago de Compostelara, zientzia kimikoak ikastera. “Horretarako behar zituen agiriak, ordura arteko ikasketen ziurtagiriak, norbaitek bidali omen zizkion; karta-azalean ez zen ageri izen-abizenik, ezta helbiderik ere”, azaldu du Salterainek.

1942-1943an itzuli zen Durangaldera Luzia Sagastasoloa, zientzia kimikoetan lizentziatuta. Durangon irakasle jardun zuen Vedruna karmelitek Kurutziazgan zuten ikastetxean, eta Komentu kaleko akademia txiki batean ere irakatsi zituen

zientziak. 1946-1947ko ikasturtean, Gasteizko Vedruna karmelitetan sartu zen moja, eta Ourenseko Comunidad Santa Joaquina de Vedruna komentura joan zen 1949an. Irakasten jarraitu zuen, eta ordenako kargu altua izatera heldu zen

## 1942-1943an itzuli zen Durangaldera Luzia Sagastasoloa, zientzia kimikoetan lizentziatuta

Madrilgo Kolegio Unibetsitarioan (1963-1982). Editorial Vedrunan ere lan egin zuen gero. 1991n itzuli zen Gasteizera; 1999an hil zen.

## Elorrioren zigiluak batzen dabilta, Nikaraguan etxeak eraikitzeke asmoz

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriok elkartasunagaz daukan konpromisoari zigilua jartzen lagundu gaitzazu lemapean Elorrioko Filatelia eta Numismatika elkarteak zigiluak batzen dabil, Kainabera elkartearen eta udalaren laguntzagaz. Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, Nikaraguako udalerrri indigena batean etxebizitza duin eta osasuntsuak eraikitzeke batzen dabilta zigilu hauek.

Hori horrela, herritarrei, komertzioetako jabeek zein lantokietako kideek dei egin diete jasotzen dituzten zigiluak Elorrioko dendetan entregatzeko edo Iturri Kultur Etxera eramateko. Dendak pegatina batezagaz identifikatuta daude.

## Elorrioko Belengua eta Ibarra kaleak berriztuta eta itxuraldatuta daude

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udalak amaitutzat eman ditu Belengua eta Ibarra kaleetako lanak. Lan horiek iazko aurrekontuetako proiekturik garrantzitsuenetarikoak izan ziren.

Belengua kalea urbanizatu egin dute eta Ibarra kalean espaloiak jarri dituzte. Bi kaleetako lanen helburu nagusia herritarren segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzea izan da. Azken asteotan lanen azken ukituak egin dituzte.

## Letxeria eta Samartoi kaleak espalo berri batezag lotuko dituzte aurten

Herrian hainbat lan burutzen ari dira oinezkoen lehentasuna emateko, eta espalo berria da proiektu horietako bat

### OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Herriguneko espalo sarea osatzeko bidean, Letxeria ingurua Samartoi kaleagaz lotuko duen espalo berria egiteko lanak burutuko dituzte aurten. Orain, puntu batetik bestera joateko, edo asfaltotik edo atzeko bide batetik joan beharra dago. Espalo berriagaz, oinezkoen bide-ratutako sarea handitzen jarraitzea dute helburu.

Lan horiek aprobetxatuz, Samartoi kaleko zoruaren gaineko geruza aldatu egingo dute, labainkor dagoelako. Gaineko geruza kendu eta *slurri* izeneko material bat jarriko dute. Material horren ezaugarrietako bat da ez dela labainkorra.

Lan biak aurten amaitzea da helburua, negu aurretik. 30.000 euro inguruko aurrekontua izango dute lanak egiteko.



Samartoi kalean produktu bat botako dute, oinezkoen labain egin ez dezaten.

## Eusko Ikaskuntzak foro parte-hartzailea gauzatuko du bihar kultur etxean

### OTXANDIO • J.D.

Eusko Ikaskuntzak 100 urte betetzen ditu aurten. *Herritarren ahotsa* izeneko prozesuagaz egiten ari dira mendeurrenaren ospakizunera eramango dituen bidea. Prozesu horren barruan, herri txikietako errealitatea jasotzeko foroak egin izan dituzte herri askotan, eta batzar horietako azkena Otxandion izango da, bihar goizean zehar, kultur etxean. Aurretik izena eman dutenek parte hartu ahal izango dute.



# IBAIZABAL IKASTOLAN...POZIK!

Konfiantzazko irakaskuntza, emaitza bikainekin, lehenengo pertsonan



**Eta gurean ere baditugu:**  
Errota Ostata - Aterpetxea -  
Kirrolerrota - Gimnasioa



Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta profesionaltasun ziurtagiriak zerbitzuekin uztartzen dituen eremu anitza da Ibaizabal. Errealitate berezia, jardura desberdinek (gimnasioa, aterpetxea eta ostata) bat egiten baitute eskaintza akademikoagaz. Aniztasunak aberasten du leku hau, eta etorkizuneko hiritar euskaldun eta jantziak hezten ditu ezinbestean. Bizitzari indiferentziaz behintzat begiratuko ez dioten euskal herritarrak. Hona hemen norantza horretan eragiten duten gako batzuk:

## **Batxilergoa: Erabakiak hartzeko tarte hori**

Erabaki garrantzitsuak hartu behar dira batxilergoan. Horregatik, batxilergoa hasten duen lehenengo egunetik, bere norantza akademikoaren gaineko kontrola ikasleak berak eraman behar duela uste dugu, erabaki garrantzitsuak autonomiaz eta heldutasunez har ditzan. Bidean, ikaslea babestuta eta indartsu sentitzeko helbururako lana egingo dugu guk, gertu gertutik.

Izan ere, tematuta gaude ikaslea ondo sentitu dadin. Horretarako, ikaslearen jarraipena berezia da Ibaizabalen: irakasle guztiak tutore dira, eta bakoitzak ikasle kopuru txikia dauka. Familiek, irakasleek eta ikasleek elkarlanean funtzionatzen dute. Ondorioz, ikasle bakoitzak bere bidelagun izango den irakaslea izango du erreferentzia legez lehenengo egunetik.

Horretaz gain, ikasgai desberdinetako prozedura eta edukiak indartzeko errefortzu sistema jartzen dugu ikasleen eskura Ibaizabalen.

Errefortzu saioak eska ditzakete, ikasturtean zehar hutsuneak osatzen joan ahal izateko. Neurri hauek guztiak bere fruituak ematen dituzte. Urtero Ibaizabaleko asebetetze zein emaitza akademikoak sektorekoekin alderatuz hobeak izaten dia. 34 ikasle-gaz hasi zen ikastola, eta gaur egun 300 ikasle baino gehiago ditugu. Matrikularen goranzko joerak epe ertainean jarraitu egingo duela aurreikusten denez, laugarren lerroa zabaldu dugu. Honi erantzuteko, 1.000 m<sup>2</sup>ko eraikin berria inauguratu genuen 2013ko irailean.

## **Orientazioaren garrantzia**

Ikasketa prozesua ikaslearengandik abiatzen da. Norberaren asmoak identifikatu eta horiek lortzeko eskuratu beharreko lanabesak lor ditzaten lan egiten uzten diegu. Eta hori guztia orientazio egoki batez gauzatzen da. Aukera akademiko zein laboralen gainean informazio osoa jasotzen dutela ziurtatuko dugu. Horretarako, ikasle ohien eta inguruko Unibertsitateetako adituen testigantzak ekartzen ditugu, Unibertsitate eta ikastetxeetara irteerak eta aurkezpenak edo gure trebakuntza eskaintza teknikoak jartzen ditugu haien eskura. Helburua argia da: Ikaslea %100ean trebatzea hemendik ateratzean dagokion bidea ondo egin dezan. Ikasleak akademikoki zein sozialki jantzita eta konpetente prestatzea, alegia.

## **Lanbide heziketa arautu**

Lanbide heziketaren alorrean, Haur Hezkuntzako Goi Mailako

Zikloa eskaintzen da Ibaizabalen. Ziklo honek haurtzaindegietako teknikari lana egiteko zein Unibertsitatean ikasteko aukera zabalitzen du.

## **Ibaizabal+ elkarreragineko espazioa**

Ezin dugu hezkuntza ulertu barneko eremu isolatua bezala. Hezkuntzatik abiatzen dugu gure ekarpena, baina aldi berean eragileak gara. Euskalgintzan, herrigintzan, kulturgintzan...euskal nortasuna oinarri izanik, mundura zabalik dagoen ikuspegia lantzen dugu. Jendartearen erronka eta ametsen parte izan nahi dugu. Ikastola soil batetik haruntzago joan nahi dugu, eta gure ingurua eraldatu.

Antzerkia, mekanografia ikastaroak, Oxford azterketen eremu ofiziala, Kirolerrota gimnasioa, Errota ostatu/aterpetxea, zein bestelako eskolaz kanpokoak ere anitzak ditugu. Zentzu horretan, ezinbestekoa deritzogu ikaslea bera ere erabaki eta eztabaida guneetan egotea. Ikasle kontseiluan proposamenak eginez, iritzi eta proposamenak Irakurri aldizkarian plazaratuz edo tertulia eta eztabaida foroetan parte hartuz. Ikastola auzolanean ulertzen dugu nahitaez. Beraz, gutariko bakoitzak bere ekarpena egin dezakegu Ibaizabal ikastolan. Izan ere, kooperatiba gara, gurasoek eta ikasleek zuzeneko esku hartzea dutelarik ikastolako erabaki nagusietan.

Nahi baduzu, ezagutu gaitzazu ate irekien saioetan. Bazatuz Ibaizabalera?



- Konfidantzan, ikastola -

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus

Tel.: 946 215 877

www.ibaizabalikastola.eus

**BATXILERGOA**  
**Aurrematrikula epea:**  
maiatzaren 2tik 14ra  
**Ate irekien eguna:**  
apirilaren 24an, 18:00etan

**HAUR HEZKUNTZAKO**  
**GOI MAILAKO ZIKLOA**  
**Ate irekien eguna:**  
maiatzaren 14an, 18:00ean



## Lokalak etxebizitza legez erabiltzeko legea moldatu dute ordenantza berriagaz

**ZALDIBAR** • A.M.

Hirigintza Plan Orokorren harira aurkeztutako alegazio biren erantzuteko egin da aldaketa ordenantzaren. Martxoan plenoan udalbatzak aho batez onartu zuen aldaketa, eta, honen arabera, 36,7 metro koadrotik gorako azalera duten lokalak etxebizitza modura erabili ahaliko dira. Hala ere, salbuespenak egongo dira, izan ere saltokiak dauden kaleetako lokaletan ezingo dira etxebizitzak egin. Neurri honegatik, herriko merkataritza babestu gura dute. Eneritz Azpitarte alkatearen berbetan, Alde

**Erdiguneko lokalak salbuespena dira; horiek ezingo dira etxebizitza legez erabili**

Zaharra, San Andres eta Abeletxe inguruak ordenantza berri honetatik kanpo geratzen dira. "Neurria onuragarria dela uste dugu. Hala ere, ez dugu herriko komertzioaren kalterako izatea gura", adierazi zuen plenoan.

Lokalak etxebizitza legez erabili ahal diren egiaztatzeaz udal teknikariak arduratuko dira. Argitasuna, aireztatzea eta energia-eraginkortasuna dira, adibidez, zaindu beharrekoak.



Herriguneko goiko eremuan ipintzen dituzte postuak, elizaren eta hilerriaren bueltan.

## 27 ekoizleak parte hartuko dute domekan Garaiko landare azokan

Bederatzi izango dira euren produktuak salduko dituzten Durangaldeko ekoizleak

**GARAI** • MARKEL ONAINDIA

Landarezaleen topagune bihurtuko da domekan Garai, Landara eta Lorazaintza Azokaren seigarren edizioagaz. Sektorean gora egin duen ekimena da, orain arte emaitza onak eman dituenena. Udala, Urkiola Landa Garapenerako Alkartea eta Trumoitte kultur elkarteak dira bultzatzaileak. "Edukitako arrakasta handia berritu gura dugu aurtengo seigarren edizioan, giro jator eta herrikoian murgilduta, herriko eta kanpoko zaleen topaleku

**Loreak, kaktusak, landare txikiak, erremintak... deneriko gaiak egongo dira aukeran**

finkatuz", azaldu dute antolatzaileek prentsa oharrean. 27 produktorek parte hartuko dute etziko azokan, eta horietatik 9 izango dira Durangaldekoak.

10:00etan zabalduko dituzte postuak, 15:00ak arte. Hamasei lan-

dare eta lore enpresa egongo dira produktuak saltzen, eta lanabesen beste hiru enpresa ere bai. Sasoiko loreak, kaktusak, landare txikiak, baserrirako erremintak... deneriko gaiak egongo dira aukeran. Gainera, egurrak, zeramikagaz eta loreekin lan egiten duten bost artisau ere parte hartuko dute.

Bestalde, eskualdeko hiru baserritarrek Idiazabal gazta, ogia, pastelak eta txakolina eramango dituzte azokara, bertako elikagaien erakusle.

**Zozketak**

Iaz lez, aurten ere kontsigna ipiniko dute antolatzaileek, erosketak egin ahal leku seguruan gorde eta goiza aldean pisurik barik igarotzeko aukera eskainiz. Kontsigna erabiltzen duten azokazaleen artean

**Hiru baserritarrek Idiazabal gazta, ogia, pastelak eta txakolina eramango dituzte**

opariak zozkatuko dituzte: bi lagunentzako bazkari bat eta Garaiko landetxean bi lagunentzako gaua.

Hainbat boluntarioren laguntzari esker egiten da azoka, eta horien ekarpena eskertu gura izan dute antolatzaileek publikoki.

## Lan munduan sartzeko arazoak dituzten iurretarren laneratzea errazteko egitasmoa abiatu dute

Integrando Fundazioagaz batera egingo du lan lurretako Udalak eta 16.000 euroko aurrekontua izango du horretarako



Integrando Fundazioako Ricardo Perezek eta lurretako alkate Iñaki Totorikaguenak eman dute egitasmoaren berri udaletxean.

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Gutxienez lurretako 25 langabe lan munduan sartzeko laguntza plana abiatuko dute Iurretan. Herritar hauen gizarteratzea eta laneratzea ditu helburu egitasmoak, eta parte hartzen duten herritarrei erremintak eskainiko dizkiete beraien familia, gizarte eta lan egoera hobetzeko. Horretarako, Integrando Fundazioagaz egingo du lan lurretako Udalak, eta 16.000 euroko aurrekontua izango dute. PSE-EE-ren ekimenez jaso zuen lurretako Udalen egitasmo hau 2017ko udal aurrekontuan.

Momentuz, 22 lagunek parte hartuko dute prozesu honetan. Hala ere, oraindik ere izena emateko aukerarik badagoela azaldu dute. Horretarako, Herritarren Arreta Zerbitzura jo daiteke.

**Iurretako Jai Batzordea "indartu" guran, bertan parte hartzera deitu dute**

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Iurretako Jai Batzordeak deialdia egin du laguntza eskatzeko. Borondate osoz lan egiten duten herritarrez osatutako Jai Batzordea "indartu" gura dute. Horretarako, "lanerako esku berrien eta jaiak barrutik bizitzeko gogoia duen ororen" bila ari da momentuz sei lagunek osatzen duten taldea. "Batzordea sortu zenetik gaur arte jaiak herritik eta herriarentzat egin ditugu, jaiak dituen herritar nortasuna emanaz. Hala ere, gero eta gutxiago gara", adierazi dute. Jai Batzordean parte hartu gura dutenei batzar ireki batera deitu diete, hilaren 16rako, Goiuria kulturgunean, 20:00etan. "Lanerako eta parrandarako gogotsu" diren guztiak joatera animatu ditu Jai Batzordeak.





## Hareek denporak!

# Herri txikia, baina dantza munduan, handia

ETB 1 kateko *Herri txiki, infernu handi* telebista saioan agertuko da, domeka honetan, Iurreta. Bertako herritar batzuen istorioak hobeto ezagutzeko aukera eskainiko dute Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxagaren eskutik. Zelan ez, umorea ezinbesteko osagaia izango da. Herrian dantzarekiko dagoen tradizioa eta lotura kontuan hartuta, gai hori ere jorratuko al dute? Apustu egitekotan, baiezkoaren alde-

koa da apusturik seguruenak. Hainbat istorio dituzte iurretarrak, eta argazki honetakoa da bat. 1976an Ipar Euskal Herrira egindako irteera bateko irudia da, Goiuri Sopelanak jasoa.

Orain hiru bat aste egon ziren telebistakoak herrian grabaketak egiten, eta joan zen egue-nean bideoen emanaldia egin zuten pilotalekuan. Herritarrek lepo bete zuten frontoia. Ikusminik ez da falta **M.O.**

## Sei hankako mahaia

Goiztidi  
Diaz Basterra  
EAJ



### Betebeharrak bai, baina esku-bideak ere bai!

Apirilaren 10ean 20 urte bete dira Ipar Irlandako gatazkari bukaera jarri zion akordioa sinatu zenetik. Historiak beti gogoratuko duen egun hura Aste Santuko ostirala zen. Beraz, badaude adibideak zeintzuk gatazka politikoei elkarriketen bidezko konponbideak emateko aukera badagoela erakusten dutenak.

Bestalde, 2018. urtean, XXI. mendean jadanik, eta oraingoan ere Aste Santuan, gatazka politikoa bati aurre egin nahi zaio elkarriketekin zerikusia ez duten bide batzuk jorratuta. Legea bete egin behar den atzerikapean babestuta, atxilotketak eta kartzelaratzak bata bestearen atzean ikusi ditugu, Aste Santuko egunetan ikusten diren prozesioen antzera.

Eta egia da, legea bete egin behar da, hori da hiritarren betebeharra. Baina, aizu, hori guztiok daukagu eta atxiloteta prozesio horietan faltan sumatu ditut beraien eskubideak aldarrikatzea baino delitu larriagoak egin dituzten zenbait pertsonaia. Eta jakinda denok ditugula betekizun batzuk, non geratzen dira denok ditugun eskubideak?

Non dago erabakitzeke daukagun eskubidea? Orain dela 20 urte Irlandan herriari galdetu zioten zer nahi zuten, halan egin zuen Eskoziak ere. Baina Euskal Herriak eta Kataluniak ezin dute hori egin, ez omen dugu eskubiderik. Tamalgarria benetan 2018. urtean pertsonak kartzelararata egotea herriari zer nahi duen galdetzea-gatik.

Baina ez diogu etsiko, jadanik esperientzia daukagu sasi guztien gainetik hegan egiten. Halan egin dugu beti eta halan jarraituko dugu, Euzkadi delako euzkotarren aberria.

## Durangoaldea asteen

### Udalekuetan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago dagoeneko Zaldibarren

**Zaldibar** | Udalekuak uztailearen 9an hasi eta uztailearen 20an amaituko dira, eta dagoeneko zabalik dago horietan parte hartzeko izen-ematea. Zaldibarko Udalak ohar bidez adierazi duenez, apirilaren 21a baino lehen eman beharko da izena, eta ordurako kuota ordainduta egon beharko da. Izen-ematea udal bulegoetan egingo da. Bestalde, zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrentzat diru-laguntzak daudela jakitera eman dute.

### Errefuxiatuei elkartasuna adierazteko jaia antolatu dute, zapatuan, Zornotzan

**Zornotza** | Zornotzako Burdin Hari-k hainbat ekimen antolatu ditu biharko. 13:00etan, Ondo Etorri Errefuxiatuak-en kontzentrazioa babestuko dute, Politenan. 15:00etan, bazkaritara batuko dira. Ondoren, 18:30ean, Tres Piezas, Garrasika, Calling The Riot, Akabu eta DJ BHren kontzertuak hasiko dira, Ziztada gunean. Batutako dirua errefuxiatuei laguntzeko izango da.

### Ekainaren 10ean egingo den giza katerako metroa eskuratu daiteke Elorrioren

**Elorrio** | Ekainaren 10erako Gure Esku Dagok antolatu duen giza katerako izena emateko aukera dago, gaurtik aurrera, Elorrioren. Elorrioko taldekoek ondorengo egun hauetan jarriko dute mahaia herriko plazan: apirilko eta maiatzeko bariku denetan, 19:00etatik 20:30era, eta maiatzaren 20ko eta 27ko domeketan, 12:30etik 14:00era. Ekainaren 1a, 3a eta 8a izango dira giza katerako metroa eskuratzeko azken egunak Elorrioren.



### Martxoaren 8an lortutako indarrari jarraipena eman gura diote feministek

**Durango** | Greba deialdiak aparteko dimentsio bat eman zion Emakumeen Nazioarteko Egunari, eta Euskal Herriko kaleak emakumez bete ziren. Durangon ere manifestazio historikoa egin zuten. Egun hartan lortutako indarrari eta greban hasitako lanketari segida emateko asmoz, batzarrera deitu dute feminista durangarrek, domeka honetan, 11:00etan, Andragunean.

Edukiei dagokienez ere zabala izan zen greba. Besteak beste, indarkeria sexista, zaintza, enplegua eta eredu kontsumista jorratu zituzten deitzaileek. Lan ildo horiei aurrerantzean zelan heldu izango da domekako batzarraren helburuetako bat.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
info@aldekoootalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 **IURRETA** - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791

**urtxintxa**  
jostailu denda  
Jolasten ikastea errazagoa delako  
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



## PAREAK EGIN

Lotu sukalde-tresna bakoitzari dagokion produktua



## Arrotza

Hemen bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena, zein da?



Sar...  
[www.plazan.com](http://www.plazan.com)  
web at...  
denbora-p...  
erantzunekin...  
hainbat jolas au...



5 Mermelada egiteko oinarri-oinarrizkoak fruta, azukrea, eta ura dira. Erreparatu marrazkian dauden fruta guztiei eta esan: hemen ditzuzun pota hauetatik zein ezingo genuke bete ?



1 Fruta eta barazki ugari ikusten da hemen, baina ba al da limoirik ? 2 Eta porrurik ? 3 Zenbat gerezi ikusten ditzuzu ? 4 Ba al da ur botilarik ?






[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)

## DOMINOA

Marraztu falta diren irudiak, domino jolas hau zuzena izan dadin.



## MARGOTU

Kameleoiek aldatzearen arabera aldatzen omen dute larruaren kolorea, normalean. Honek ordea, gordetzeko egingo du. Inguruko koloreak hartuz, kamuflatu egingo da. Zer itxura hartuko du? Margo ezazu.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)

rtu  
nbazan.eus  
rian eta  
asa hauen  
batera beste  
urkituko dituzu.

Kids&Us.  
school of english

ENGLISH FOR LIFE

Ingelesa urte 1 etik aurrera

**EZAGUTU GAITZAZU!**

Kids&Us Durango · Durangoko Plateruen Plaza, 8 · T. 609 533 343 · durango@kidsandus.es





## Barbakoa Urkiolan

KATALAMIXONEN ESKUTIK  
ABADIÑO :: Apirilak 21

2001-2007 bitartean jaiotako  
gazteentzat

Katalamixon aisialdi elkarteak Aisialdi Gaztea udal egitarauaren baitan antolatu du ekimena. 11:00-17:00 bitartean izango da barbakoa. Izena emateko epea hilaren 18an amaituko da.

### Apirilaren 13an

**ELORRIO emanaldia**  
'Borobilean' Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizuna, 17:00etan eta 19:00etan, Arriolan

**IURRETA ipuin musikatua**  
'Ina, nire ama afrikarra' ipuin musikatua, 18:00etan, herri bibliotekan.

**ELORRIO emanaldia**  
'Gazteak Kalean' dokumentalaren emanaldia, 19:30ean, gaztetxean.

**DURANGO solasaldia**  
Jasone Osorok idatzitako '12:00etan bermuta' liburuari buruzko literatura solasaldia, 18:00-20:00etan, Andragunean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
'Ramper historia de un payaso' antzezlan, 20:15ean, Zornotza aretoan.

### Apirilaren 14an

**DURANGO deialdia**  
Sapuetxe gaztetxearen agur jaia; tako jana, 14:00etan, Uhmas, El Reciclador 10, Maldita Shit, Puto Bastardo, Storm, Konorte, Moonshiners, The Lionels, Stronger Together, Desperdizio, Klown eta The Enfermos taldeen kontzertuak, 15:30ean, Sapuetxen.

**ZORNOTZA deialdia**  
Errefuxiatuekin elkartasunezko eguna; elkarretaratzea (Politenan), 13:00etan, bazkaria (Piken), eta ostean, Zakari Valdes eta erromeria, 15:00etan, Tres Piezas, Garrasika, Calling the Riot eta Akabu taldeen kontzertua, ostean dj BH, 18:30ean hasita, Ziztadan.

**BERRIZ antzerkia**  
'Oxido umore garratza' antzezlan Pez Limboren eskutik, 19:00etan, Kultur Etxean.



**DURANGO antzerkia**  
'Sherezade y las capas de la cebolla' antzezlan Vaiven konpainiaren eskutik, 20:00etan, San Agustin kulturunean.

**ABADIÑO antzerkia**  
'Ensayos para siete' antzezlan Boguslaw Schaefferren eskutik, 20:00etan, Errota kultur etxean.

**DURANGO musika**  
Doctor Deseo taldeak 'La Fuerza de la Fragilidad, Palabras ante el Espejo' lan berria aurkeztuko du kontzertuan, 22:00etan, Plateruenean.

**OTXANDIO deialdia**  
Auzolana erabiltzaileekin, Gaztetxean.

### Apirilaren 15ean

**ELORRIO deialdia**  
Bizikletaren festa Elorrio Osasuntsua programaren baitan, 11:00etan, plazan.

### Apirilaren 15era arte

**DURANGO erakusketa**  
Josu Rekalderen 'Erresilientziak' erakusketa, Arte eta Historia museoan.

**DURANGO erakusketa**  
Durangaldeko emakume artisten 'Hausnarketak' erakusketa, Arte eta Historia museoan.

### Apirilaren 6tik 15era arte

**DURANGO erakusketa**  
Enrike Larramendiren obren erakusketa, Ezkurdiko udal aretoan.

### Martxo eta apirila bitartean

**BERRIZ erakusketa**  
Ane Pikaza ilustratzailearen 'Landareak, lumak eta beste inbasio batzuk', Kultur Etxean.

### Apirilaren 18an

**DURANGO irteera**  
'Ferreteria El Pobal' museora irteera Durangoko Udalak antolatuta (izena emateko [adintek@durango.eus](mailto:adintek@durango.eus) edo 944657451), 16:00etan, Botafumeiro aurrean.



## Borobilean

IKUSKIZUNA  
ELORRIO :: Apirilak 13

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Borobilean ikuskizunagaz datoz Arriolara. Txatxi programaren baitan antolatu dira emanaldi biak. Lehena 17:00etan da, eta bigarrena, 19:00etan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu 946 232 523 telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



# Chrysallis taldeko Bea Sever Durangoko Berbagunean

**BERBALDIAK** | Adin txikiko transexualen familiak elkartzen dituen Chrysallis elkarteak ki-deak hitzaldi bi eskainiko ditu Udal Euskaltegiko Berbagunea artean. Severrek *Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da* izeneko hitzaldia eskainiko du, egun bitan. Apirilaren 16ko astelehenean izango da lehena, 10:00etan; bigarrena martitzenean izango da, 17:00etan. Egunduetan bietan sarrera irekia izango da.



HIRUKA



## Joseba Sarrionandiaren lanak hizpide, Elorrion

**LITERATURA** | Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna dela kontuan hartuta, Joseba Sarrionandia idazle iurretarra eta bere literatura ezagutzeko aukera izango du elorriarrek. "Herritarrek irakurtzea bultzatu gura dugu, eta hori lurretan jaio zitzaigun idazle paregabearen ibilbidea erreparatuta egingo dugu", adierazi du Txus Arrieta zinegotziak.

Horretarako, Elorrioko Udalak egitarau zabala antolatu du. Apirilaren 16tik 27ra, herritarrek idazle iurretarraren obra guztiak maileguan hartzeko aukera izango du Elorrioko liburutegian.

Bestalde, apirilaren 19an, 'Irakurketaz' performance-a eskainiko du herriko plazan. Eta egitarauari amaiera emateko, apirilaren 26an, Peru Magdalena durangarrak eta Pello

Salaberria elorriarrek ekoiztutako *Joseba Sarrionandia. Hemen eta han* dokumentala eskainiko du. Emankizunaren ostean, Magdalenagaz solasaldia egongo da.

### Apirilean

**Sarrionandiaren obra erakusgai**  
16tik 27ra, liburutegian

**'Irakurketaz' performance -a**  
19an, 19:00etan, plazan

**'Hemen eta han' dokumentala eta solasaldia Peru Magdalenagaz**  
26an, 19:00etan, Arriolan

**DURANGO** **berbaldia**  
'Gerra hemen hasten da eta eragozpen fiskala' **berbaldia Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak antolatuta**, 19:00etan, Plateruenean.

### Apirilaren 19an

**ZALDIBAR** **berbaldia**  
**Pentsioen inguruko solasaldi irekia**  
**EH Bilduko Marian Beitialarrangoitiagaz eta pentsiodunen elkarte Jon Fanogaz**, 18:00etan, udaletxeko pleno aretoan.

**DURANGO** **berbaldia**  
'Holderlin: olerkariaren olerkaria' **Aitor Aurrekoetxea EHUKo estetika irakaslearen eskutik**, 19:00etan, Arte eta Historia museon.

### Apirilaren 20an

**ZORNOTZA** **antzerkia**  
**Hika antzerki taldearen 'Txerriboda' antzezlan**a, 20:15ean, Zornotza aretoan.

**DURANGO** **musika**  
**Dj Lorontzi Udaberri Festan**, 00:00etan, Intxaurre elkartearen.

**DURANGO** **musika**  
**Paco Eskorbuto, Etsaiakeroak eta El Exterminio de la Raza Humana taldeen kontzertua**, 20:15ean, Plateruenean.

### Apirilak 21 eta 22

**DURANGO** **lehiaketa**  
'24 Ordu Paperean' **sorkuntza jolasa Sorginolako Ateneoak antolatuta**, apirilaren 21ean, 12:00etan, Sorginolan.

## Apirileko agenda



|           |   |
|-----------|---|
| <b>14</b> | <b>"AUZORIK AUZO" Oromiño auzoan (San Marko)</b><br>18:00 KHERAU eta jarraian auzokideekin luntx xume bat   |
| <b>15</b> | <b>"XXXVIII IURRETAKO HIRI PROBA"</b><br>10:30 Kaskoan  |
| <b>16</b> | <b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b><br>Paperezko hegoak: haurrentzako irakurketa kluba<br>15:45 D.B.H. 1. maila<br>17:00 L.H. 5. maila<br>18:00 L.H. 6. maila |
| <b>17</b> | <b>"ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA"</b><br>18:30 Zine-Forum  |
| <b>18</b> | <b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA-GIZARTE ONGIZATEA"</b><br>10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba  |
| <b>19</b> | <b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b><br>17:00 3-5 urte<br>18:00 6-7 urte   |



'Zergatik erabaki?' solasaldi zikloaren baitan, Javier Urizarren hitzaldia, 19:00etan, Iturri kultur etxean.

### Apirilaren 30era arte

**IURRETA** **lehiaketa**  
'IkimilikilikLIK' **argazki lehiaketa. Udalak herritarrek sortutako mezuak jaso eta zabaltu gura ditu herrian.**  
Argazkiak sare sozialen bidez bidali daitezke, edota [euskaraikimilikilik@gmail.com](mailto:euskaraikimilikilik@gmail.com) helbidearen bidez.

### Apirilaren 10etik ekainaren 19ra

**BERRIZ** **ikastaroa**  
**14 urtetik gorako emakumeentzako argazki ikastaroa (izena emateko azken eguna, apirilaren 6a)**, 18:00-19:30 (martitzenero), Kultur Etxean.

## Zine- ma

**:: Berriz**  
**KULTUR ETXEA**  
**Oin Handiaren Semea**  
barikua 13: 18:15  
domeka 15: 17:00

**:: Durango**  
**ZUGAZA**  
• **Proyecto Rampage**  
barikua 13: 19:30/22:00  
zapatua 14: 17:00/19:30/22:30  
domeka 15: 18:00/20:30  
astelehena 16: 18:30/21:00  
martitzena 17: 20:00  
eguzatena 18: 20:00

• **El Buen Maestro**  
barikua 13: 19:30/22:00  
zapatua 14: 19:30/22:30  
domeka 15: 18:30/21:00  
astelehena 16: 18:30/21:00  
martitzena 17: 20:00  
eguzatena 18: 20:00

• **Campeones**  
barikua 13: 19:30/22:00  
zapatua 14: 19:30/22:30  
domeka 15: 18:30/21:00  
astelehena 16: 18:30/21:00  
martitzena 17: 20:00

**:: Elorrio**  
**ARRIOLA**

• **Call me by your Name**  
zapatua 14: 22:00  
domeka 15: 20:00  
astelehena 16: 17:30/20:30  
• **Salvando al Reino de Oz**  
domeka 15: 17:00

**:: Zornotza**  
**ARETOA**

• **Gringo: Se Busca Vivo o Muerto**  
zapatua 14: 19:30/22:00  
domeka 15: 20:00  
• **Call me by your Name**  
astelehena 16: 20:15  
martitzena 17: 20:15



# “Txiki sentiarazten gaituena onartzeak indartzen gaitu”

‘La fuerza de la Fragilidad’ diskoa eta ‘Palabras Ante el Espejo’ poema-liburua biltzen ditu Doctor Deseoren azken lanak; bilbotarrak Plateruenean izango dira, bihar, beratu aurkezten



ANDER CANALES

**Francis Diez Rojo**  
Doctor Deseoko abeslaria  
Bilbo | 1958

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

Lan berri baten aurkezpen birari ekingo dio Plateruenean, beste behin, Doctor Deseok; azken aldietan bezala, zalez lepo egongo da antzokia, sarrera ia guztiak saldu dituzte-eta. ‘La Fuerza de la Fragilidad’ zuzenean aurkeztuko dute Durangoko aretoan, bihar.

**Zer dakar lan berri honek?**

Adios da lehenbiziko singlea, abesti lasai bat, eta, nolabait, maite den pertsona bati egindako agurra izan daiteke; nire kasuan, aitaren agurra. Inguruko heriotza, edota norberarena, gertatzen diren gauzak dira, baina ez da horietaz berba egiten. Atzera-bueltarik ez dagoela jakinda, ospakizun moduko bat bilatzen dugu. Musikalki, *garagetik*

hurbil dagoela esango nuke, gitarra doinu basatiekin eta lelo indartsu eta eranskorrekin. *Dance*agaz uztartu dugu gainera, nola ez, guztiari gure ukitua emanez. Abestietan kontraste handiak nabari dira, eta, azken finean, hori da bilatzen duguna, guztia ospakizun handi bat izatea, baina ez ospakizun txepel bat. *Por la Madriguera del Conejo Blanco* kantua adibide ona da: Ricky Martinen *Living la Vida Loca*ren eta Nietzscheren *Honela Mintzatu zen Zaratrustaren* arteko nahasketa moduko bat da. Nietzscheri esaldi bat hartu diogu, “Bizitza hau da? Kaka hau? Hara ba, atzera beste behin”. Bera ez da horrela mintzatzen normalean, baina oso bilbotarra dirudi horrela [barrez].

Paradisuan edo berraragiztatzeetan sinesten ez dugunok bizitza baino ez dugu, eta hori bera oso boteretsua da. Diskoan horri buruz dihardugu. Hilko dela dakien

espezie bakarra gara; badakigu asko sufrituko dugula, eta behar bada pertsona maitatuak galduko ditugula, eta horrek, normala den bezala, estutasuna sortzen du. Ho-

“**Erditzeagaz lotzen dut diskoak kaleratzeko prozesua; bila nabil, baina oraindik ez dut epiduralik aurkitu**”

rrerz gainera, egunerokoan eragiten diguten estutasun ugari ditugu, lan baldintzak... Estutasun horrek txiki sentiarazten gaitu, baina behin onartuta, indartu egiten gara, ezberdin egiten gaitu indar horrek, enpatikoago. Orain artean agintean egon den ar menderatzailearen indarkeriaren antitesia da hauskortasunaren indarra.

**Hiru abesti klasiko Euskadiko Orkes-**

**tra Sinfonikoagaz grabatu dituzue. Zergatik?**

Fernando Velazquezek [musikagile bizkaitarra, eta orkestra zuzendaria] eta EOSekoek deitu ziguten, beraiekin hiru abesti klasiko on-gintzazko jaialdi baterako egiteko. Ez genuen espero, eta luxu bat iruditu zitzaigun, bizitzan behin ager-

lokaleko lanari eta konposaketari; deskonektatu egiten dugu zuzenekoetatik, pertsona eta musikari legez bilakaera eduki ahal izateko. **Plateruenean ekingo diozue birari, beste behin. Zergatik han?**

Birak han hastea gustatzen zaigu. Biretarako zortea ematen digu han hasteak, gainera. Oso eroso egoten gara Plateruenean, eta ezin hobeto tratatzen gaituzte, gainera.

**Zerbait berezia prestatu duzue zuzenekoetarako?**

Argietan Jon Mentxakagaz gabil-tza lanean; bira honetarako *ad hoc* prestatu ditu gauza batzuk. Baina ez dut ezer gehiago aurreratuko, sorpresa ez izorratzeko [barrez]. Bira berri honen kontzeptua aurrekoa baino biziagoa da; denboraldi batzuetan antzokietan aritzen gara, eta motelago aritzea gustatzen zaigu. Oraingoan, ostera, zerbait indartsuagoa egin gura dugu.

**Lan honetan ere euskarazko abesti bat sartu duzue. Inoiz euskara hutsean abesturiko kantekin disko oso bat kaleratzeko asmorik?**

Guretzat ohitura bilakatu da. Be-tebeharra bilakatu zaigu diskoan euskarazko abesti bat egitea; horrela sentitzen dugu, eta gustatzen zaigu, beste modu batera lan egiteko aukera eskaintzen digulako. Disko oso bat? Behar bada. Gasteizen, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira kontzertua eskaini genuen euskarazko kantak soilik abestuz; hamalau kantukoa izan zen.

“

**Ricky Martinen ‘Living la Vida Loca’ eta Niechtzeren Zaratrusta biltzen ditugu lan honetan**”

tzen zaizun aukera horietako bat. Une ahaztezinak izan ziren. Hori dela-eta, zaleek etxean edukitzeko eta entzuteko aukera izan zezaten gura genuen. Behin formatu fisikoa eginda, ganorazko zerbait egitea gustatzen zaigu. KDaz eta DVDaz gainera, Doctor Deseoren abesti guztien berbak dituen liburua kaleratu dugu oraingo honetan.

**Hamaseigarren estudioko lana duzue. Erraza egiten zaizue konposatzea?**

Ez, inoiz ez da erraza. Erditzeko prozesuagaz lotzen dut nik; oraindik ez dut epidurala aurkitu, nahiz eta horretarako beharrea nabilen. Behar asko du atzetik, ordu asko lokalean sartuta. Urtebete eskaintzen diegu birei, eta beste urtebete

## Formatu berezian, %21eko BEZa ekiditeko



Zortzi abesti berrigaz KDa, DVDa eta Doctor Deseoren ibilbideko abesti guztien (150 inguru) berbak batzen dituen liburua biltzen ditu *La Fuerza de la Fragilidad*. *Palabras Ante el Espejo* lan berri honek. Diseinuaz Lourdes Merino arduratu da. “Sekulako lana egin du”, azaldu du Diezek. Formatuari buruz, musikari guztiei egiten die horrela egiteko gomendioa.

“Aurretik ere eginga dugu horrela, eta oso gomendagarria da; BEZaren %21ek suposatzen duen basakeriari izkin egiteko baliagarria da, gainera. Formatu honeguz, liburuek duten %4 ezartzen zaio gure lanari; prezio berdinean, oso lan zaindua eskaini dezakezu, beraz”, adierazi du.



**bbt18**  
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2018

**OTXANDIO**  
APIRILAK 21  
17:30,  
MAÑONDOKO GIMNASIOA  
Aitor Etxebarriazarraga Gabiola  
Beñat Vidal Gurrutxaga  
Lurdes Ondaro Mallea  
Imanol Uriá Albizuri  
Jontxu Martínez Zarrabellia  
Josune Aramendi Perez









# “Muga gatazkako lekua izanik, argazkiak dramaren eta tragediaren artean daude”

Apirilaren 30era arte ikusgai egongo dira ‘Muga’ liburuko argazkiak Bilboko foru liburutegian; liburua salgai dago

**ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO**  
‘Muga’ argazki liburua labetik atera berri du Jesus Mari Arruabarrena argazkilari durangarrak. Horrez gain, bildumako 50 bat argazkigaz erakusketa jarri du Bizkaiko Foru Liburutegian.

**‘Muga’ labetik atera berri duzu. Zer gura izan duzu kontatzea liburu berri honeguz?**

Liburuak ardatz bi ditu, zutabe bi. Bata, Orson Wellesen *Le Pays Basque* pelikula (1955), eta bestea, inguririk egin dudana bada. Hor, beste hainbat gai tartekatuta ditut gero, lurraldetasunari buruzko gogoetak, Cométe sarea, Vallespin fortifikazioa eta kontrabandoa, besteak beste.

**Zelakoa da kontatzen duzun bidaia?**

Motorrean egindako bidaia bat da. Sarritan joaten naiz mugara eta horiek ere agertzen dira bertan. Argazkietako batzuk orain hogeita hamar urtekoak dira. *Muga* lanak forma hartu aurretik, Baztan fotografiatzen ibili nintzen luzaro, bai paisaiak, eta baita baserriak ere. Ohiturekin loturiko gaiak ere atera nituen argazkietan; adibidez, kaikugileak eta agoteak. Han egindako egonaldietan ikusi nuen gaietako batzuk errekurrenteak zirela: gerra, kontrabandoa eta iparraldeko jendeagaz zuten hartu-eman. Hango berrialdiek eta hango kontuen xarmak bultzatu ninduten muga bera gai moduan jorratzera. Baztanen murgildu ahal konturatu nintzen aukera hori zegoela.

**Zer suposatzen du zuretzat muga horrek?**

Ondo egin duzu galdetzen, zeren eta, alde batetik, mugak guztiontzat zer suposatzen duen dago hor. Euskal Herria erdibitzen duen oztopoa da, bereiztu egiten gaituelako eta, neurri handi batean, horregatik dugulako nortasun ezberdina alde bietakook. Baina, beste alde



**Jesus Mari Arruabarrena**  
**Gaztelurrutia**  
Argazkilaria  
**Durango | 1964**

batetik, aukera bat ere izan zen muga. Izan ere, sasoi batean, muga inguruetako jendea gaueko lanetik bizi izan zelako. Egunean zehar nekazari edo arotz zebilen jendea, baina benetako dirua gauekotik zertorrela esaten zen.

Niretzat, bestalde, esperientzia toki bat izan da. Wellesen arrastoaren atzetik ibili naiz, oso gustura gainera. Baina, momentu batetik aurrera, bakardade leku bat ere izan da, latza, zer pentsatu asko ematen dizuna. Orduan, mugak osagai bi horiek dituela uste dut, baina errealitatean zer den, eta bestea, niretzat zer esan gura duen.

**Beraz, mugak izaera oso bat du erakia bere inguruan? Argazkiak nahiko ilunak dira argi aldetik, hori nabarmendu gura izan duzu?**

Muga, berez, hain iluna da? Ziurrenik, bai. Muga tragedia leku bat da, gerra sasoi batean, gatazka leku bat, jendeak igaro gura zuena, eta igaro ostean ere arazo bat zena.

Kontrabandoa aipatu dut lehen, baina jendea ere pasatzen zen alde batetik bestera; portugaldarrak Parisera joaten ziren, eta euskal herritarrek ere zeharkatu izan dute modu klandestinoan. Xalbadorrek berak *Odolaren Mintzoa* liburuan aipatzen du [liburuan aipamena egiten zaio], hiru beltz agertu zirela hotzez hilik Ezpeletako mendietan. Gatazkarako lekua izanik, argazkiak dramatikoak dira, ilunak, eta dramaren eta tragediaren artean daude. Oso ikuspegi pertsonala da, baina benetan osagai hori badutela uste dut. Drama hori ez dut neuk asmatu.

**Orson Welles aipatu duzu. Nola lotu zenuen kontzeptuagaz?**

Muga askotan igaro ostean, modu kontzientean lotu nuen. Aspaldi ikusi nuen *Le Pays Basque*, eta harrituta utzi ninduen zelako sinpatia agertzen zuen euskaldunekiko. Pelikula bera oso abangoardista da, forma aldetik. Kanpotar batek eus-

“

**Gustura ibili naiz Wellesen arrastoaren atzetik; bakardade lekua ere bada, baina, pentsarazten duena”**

—

kaldunoi buruz inoiz esan bakoak esaten dira pelikulan. Konparazioa mugaren gainetik pasatzen diren txoriekin egiten du, eta interesgarria zen zentzu horretan.

**Bilbokoaz gainera, baduzu ‘Muga’ beste nonbait erakusteko asmorik?**

Bokazio ibiltaria du erakusketa honen, eta hiriburuetan erakusketak egiteaz gainera, muga inguruetako herriren batean erakustea gustatuko litzaidake. Oraindik, baina, azken horietan ez daukat ezer lotuta.

**Liburua non erosi daiteke?**

Hitz eta Arteka liburu-dendetan dago salgai, eta internet bidez ere erosi daiteke.

## Geure Durangaldea

Ainhoa Urien  
Telletxe  
Ikaslea



### Berdinegia

Oroimena presa bat bezalakoa da, eta presa orok bezala beharrezko du beteta egotea, baina baita ihesbideak izatea ere. Atxagaren *Obabakoak* liburu zoragarrian irakurritako hausnarketa da.

Memoriak eta ahanzturak orekatuta egon behar dute gudan, sentitzeko eta sentitzeari uzteko. Izan ere, badaude oroimen afektiboak, norberaren bizitzari endredatzen zaizkionak, nola sugea akabatu nahi duen gorputzari. Halakoe-tan, begiek baino askoz gehiago ikusten dute buru-bihotzek. Horregatik, batzuk zokoratu behar diren era berean oso presente izan behar dira beste batzuk, historia ez baita berdina, baina maiz errepikatzen da.

Eta hala nola, destinoak baditu karanbola izugarriak. Autobusean eseri berri gara Iruñera joateko, Durangaldearentzat ahaztezi-na izan zen martxoaren 31 pasatu eta hamabost egun eskasera. Duela 81 urte zerrutik bonbak bota zituzten esku berdinek taberna batean goizaldean izandako liskar bat leherrarazi dute. Eta bolbora oso-osorik irentsi dutenak batzuk baino ez dira izan, leherketaren uhin hedakorak etxetik milaka kilometrotara eta ziega baten barrura airean bidali dituen berberak.

Durangaldetik Altsasura, bonbek zafratu zuten herri batetik, bomba horiek eskuetan izan zituztenen ondorengoek jipoitzen duten herrira. Historia ez da berdina, baina hain desberdina ere ez. Guk behintzat ez dezagun ahaztu, gero eta desberdinagoa izan dadin.

**Sherezade y las capas de la cebolla**  
Vaivén Producciones  
Apirilak 14, larunbata  
20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
Durangoko Udala

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

**PLATERUENA**


**DOCTOR DESEO**  
Apirilak 14 · 22:00etan  
Kontzertua

**Plataforma Ongi Etorri Errefuxiatuak**  
Durango  
Apirilak 18 · 19:00etan  
GERRA HEMEN HASTEN DA ETA ERAGOZPEN FISKALA  
Berdaldia

**PAKO ESKORBUTO + ETSIAKEROAK**  
Apirilak 20 · 22:00etan  
Kontzertua

PLATERUENA  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatetxea@plateruena.net





Txaber Altube garaikurra eskuetan duela.

## Txaber Altube bertsolari abadiñarra garaile Gabiriko Osinalde bertso sariketan

Bertsolari gazteak lehenbiziko parte-hartzean lortu du sona handiko gazteen sariketa honetako garaikurra

### BERTSOLARITZA • A.M.

Joan den asteburuan eskuratu zuen abadiñarrak 47. Osinalde Bertso Sariko txapela. Altubek gau osoan zehar eutsi zion mailari, sarrri umore kolpe ederrak ere utziaz; kartzelako lanean goia jo zuen, Peru Abarrategi lehengusuagaz batera. Epaileen sariaz gainera, entzuleen sarirako ere izendatu zuten abadiñarra; bertsolari bati sari bat baino gehiago ezin zaionez eman, bigarren postuan geratu zen Oier Etxeberria azpeitiarrari eman zio-

ten garaikur hori. Saioko bertsorik onenaren saria, oster, Eli Pagola hernaniarrak jaso zuen.

Asier Galartzak eta Aitor Serrierrek osatu zuten saioa, eta, orokorrean, denek kunplitu zuten

**Bihar hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udaberriko fasea; Peru Astigarragak abestuko du**

eta printza ederrak utzi zituzten. Guztiak ziren debutariak Osinalde sariketan. Eñaut Asurabarrena gabiriarrak jarri zituen gaiak.

### Bizkaikoa, bihartik aurrera

Zapatuan hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udaberriko fasea, Bilbon. Lehenbiziko saio horretan, Peru Astigarraga iurretarrak parte hartuko du. Astigarragaz batera, Asier Legarreta, Bikain Urkiri, Ekaitz Larrazabal Katxo, Maddalen Ruesgas eta Mikel Goiriena bertsolariak arituko dira. Saioa Bilboko BBK aretoan izango da, 17:30ean.

# Gremioen gida

anboto

**Zurgintza**

**ATERPE ARBOTZAL**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

**Iturgintza**

**Mallabiena**  
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

**Iturgintza**

**Ubide**  
iturgintza  
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - GASA  
BEROGINTZA - AIREA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com  
692 859 779

Zubiurre, 8 IURRETA  
946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO  
944 071 791

**Garbiketa**

**AZKARGI GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215

**Dekorazioa**

**JAIO** barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**





**Eloi Salterain**  
**Azkarate**  
Herri kirolak  
**Abadiño | 1967**

## “Indarra odolean daramat, berezkoa dut, eta nire dohain handienetarikoa da”

Txingak eta zakua eramaten, eta orga-jokoan ibiltzen da Eloi Salterain; sokatiran eta gizon probetan aritutakoa ere bada

**HERRI KIROLAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
**Gaztetan piztu zitzaion herri kirolerako afizioa Eloi Salterain abadiñarrari. Harrezkero, herri kirolen munduan murgilduta dabil. Orain hilabete inguru, esaterako, hirugarren postua eskuratu zuen Euskadiko txinga eroate txapelketan.**

**Bakion martxoaren 17an jokaturako Euskadiko txinga eroate txapelketan hirugarren postua lortu zenuen. Pozik lortutakoagaz?**

Egia esan, bai. Txingak eramaten inoiz lortu dudana posturik onena lortu dut, eta hori gutxi balitz, nire marka ondu dut. Orain arte, nire errekorra 10 untzatan neukan. Bakion, oster, 13 untza 6 metro eta 40 zentimetro egitea lortu nuen.

**Prestaketa berezirik egin duzu aurtengo txapelketarako?**

Prestaketa berezirik ez, baina prestatu egin naiz. Adin bat ere badut, eta erronka baten aurretik apur bat entrenatzea ezinbestekoa da. Hala ere, nik jaramon egiten diot gorputzari, eta entrenamenduetan gustura sentitzen ez banaiz, moldatu egiten dut prestaketa.

**Txapelketa hauetan irabaztea izaten duzu helburu?**

Ez. Afizioa dudalako nabil herri kirolen munduan, eta ondo pasatzea,

disfrutatzea eta sasoiaren egotea dut helburu. Gaur egun ez dut gaztetan nuen irabazteko grina hori. Hala ere, egia da lana egin eta podiumean amaitzea lortzen dudanean poztu egiten naizela.

**50 kiloko txingak esku banatan hartuta ibiltzen zarete. Indarra ala teknika, zer da garrantzitsuagoa?**

Biak dira beharrezkoak. 100 kilo mugitzeko, indarra ezinbestekoa da, baina baita eskuak ondo jartzea eta gorputza postura egokian izatea ere, txinga horiek eramateko.

**Probalekua izaten duzu entrenatzeko lekua. Hala ere, korrika ere egiten duzu, erresistentzia lantzeko.**

Sasoiaren egotea ezinbestekoa da korrika egitea. Txapelketaren bat izaten dudanean, astean hiru bider irteten naiz korrika egitera. Horrek pisua jaisten laguntzen dit. Horrez gain, probalekuan ere sarri ibiltzen naiz, probak prestatzen. Hainbat ordu pasatzen ditut bertan.

**Txingak eramateaz gain, gizon probetan, zakua eramaten eta orga-jokoan ere ibiltzen zara.**

Herri kirolak gogoko ditut eta, batez ere, indarragaz lotuta daudena. Herri kirol bakoitzean, pisu ezberdinak altxatu edo garraiatu behar izaten ditut. Zakuak, adibidez, 80 kilo pisatzen du, txingek

100 kilo eta orgak 200 kilo baino gehiago. Harriaren pisua, berriz, itzela da.

**Indarra zure dohainetako bat da, ala urteen poderioz lortzen joan zaren zerbait da?**

Indarra odolean daramat, berezkoa dut, eta nire dohain handienetakoa da. Gurean ama ere oso indartsua da, eta senean daramat.

“**Gorputzari egiten diot jaramon, eta gustura sentitzen ez banaiz aldatu egiten dut nire prestaketa**”

“**Aurrez lan egin eta podiumeko postuetan amaitzea lortzen dudanean poztu egiten naiz**”

**Noiztik zabilta herri kiroleran?**

1991n sokatiran hasi nintzen Abadiñon. Garai hartan, Juantxi Sa-

rasketa durangarra etortzen zen probalekura, gizon probetan entrenatzera, eta berari esker horretan hasi nintzen. Apurka-apurka zenbait modalitate probatzen joan nintzen.

**1997an, oster, herri kirol guztiak utzi zenituen.**

Eten bat egin behar nuela iruditu, eta dena utzi nuen. Baina ezin izan nintzen denbora askoan geldirik egon eta 2011n berriro hastea erabaki nuen. Herri kirolen mundura itzuli ostean, 2013an zakua eramaten Bizkaiko Txapelketa lortu nuen.

**Hainbat modalitatetan aritu zara. Baduzu beste herri kirolen bat probatzeko gogorik?**

Dudan adina kontuan hartuta, uste dut ez dela unea beste kirol bat probatzeko. Hala ere, aizkora probatu ez izanaren pena dut. Daukadan indarragaz aizkoran ondo ibiliko nintzelakoan nago, baina hori jakiteko unea pasatu da dagoeneko.

**Abadiñoko sokatira taldeko sortzaileetako bat ere bazara.**

1991ko irailaren 2an, San Antolin jaietan sokatira txapelketa bat antolatzea erabaki genuen anaiak eta biok. Txapelketa oso ondo irten zen, eta Abadiñoko pijama egunean berriz ere egitea erabaki zen.

Herrian giro oso polita sortu zen, eta jendeak eskatu ostean sokatira taldea sortzea erabaki genuen.

“**Sokatirak aktibo egoten laguntzen dit. Gainera, taldean dagoen giro onak bizia ematen dit**”

“**Gorputzak nahiko dela esaten didanean kirola utzi egingo dut eta kitto! Inongo arazorik gabe**”

**Orditik, sokatira taldean zabilta.**

Halaxe da. Abadiñoko lagun talde batek, Luis Irazola eta Lasuen enpresaren laguntzagaz, taldea sortzea erabaki genuen, eta ordutik hainbat gabiltza. Lorentzo Irazola, Mikel Lasuen, Txabi Ardanza, Edu Mendizabal eta bostok, esaterako, talde honetako sortzaileetako batzuk gara.

**Aurten arte beti ibili izan zara sokatiran. Baina denboraldi honetan teknikari eta botilero lanak egin dituzu.**

Sokatiran aritzeak ondo prestatzea eskatzen du. Hau da, entrenamendu guztietara joan behar da taldeagaz entrenatzeko. Horrek denbora asko eskatzen du eta Eduk botilero lanak egin nitzakeela esan zidan. Onartzea erabaki nuen. Aurtengo denboraldian horretan ibili naiz.

**Sokan berriro jartzeko gogorik izan duzu?**

Bai, izan dut, eta datorren denboraldirako berriro entrenatzen hasiko naiz. Horrek aktibo egoten laguntzen dit. Gainera, taldean dagoen giro onak bizia ematen dit.

**Txapelketa batera joaten zarenean, edo sokatiran berriro hasteko asmoa duzula esatean, etxeokok zer esaten dizute?**

Gaztetan gurasoek kontuz ibiltzeko eta minik hartu barik ibiltzeko esaten zidaten. Gaur egun, oster, emazteak jendearen aurrean barrengarri ez gelditzeko esaten dit.

**Berri ere sokatiran hasteko asmoa baduzu, eta txinga eroaten zure marka guztiak hausten bazabiltza, imajinatzen dut ez duzula erretiratzeko asmorik izango.**

Oraingoz, ez, momentu honetan gustura nabil-eta. Gainera, kirola eginez nire gorputza aktibatuta eta osasuntsu edukitzeko aukera dut. Beraz, ez dut oraindik erretiratzeko asmorik. Hala ere, lehen esan bezala, nik gorputzari egiten diot jaramon, eta gorputzak nahikoa dela esaten didanean, kirola utzi egingo dut eta kito! Inongo arazorik barik.



# Iurretako Hiri Probak Espainiako txapeldunak erabakiko ditu lehenengo aldiz, domekan

Aurten espezialitateko korrikalaririk onenak etorriko dira lurretara eta parte-hartzea inoiz baino handiagoa izango da



700 parte-hatzailek gora izango dira lurretan eta horietako 400 korrikalarik Espainiako txapelketa lehiatuko dute.

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Iurretako Hiri Proba Euskal Herriko zaharrena —38. aldia du aurten— eta estatuko prestigiotsuena da, baina aurten beste maila bat gora egingo du Espainiako txapelketa hartuta. Orain hamarkada bat 10 kilometroko proben Espainiako txapelketa sortu zutenetik, lehenengoz jokatu da lurretan zein Euskal Herrian.

Ondorioz, parte-hartzaileen kantitateak zein kalitateak gora egin dute. “Gizonetan inoiz 33 minututik jaitsi diren 100 bat korrikalari datoz, eta emakumeetan 40 minututik jaitsi diren 60 bat”, nabarmendu du Juan Ignacio Hernandez Bidezabal klubeko presidentek ekimeneko aurkezpenean.

Gizonetan Juan Antonio Pérez —iazko Espainiako txapelduna— eta Fernando Carro dira fabrikatzaileak. Emakumeetan Paula González —hiru bider Espainiako

txapeldun—, Azucena Díaz eta Zulema Fuentes-Pila nabarmendu daitezke, besteak beste.

Lasterketa Maspe kalean hasi eta Askondon amaituko da. Ibilbidea urteroko bera da: Santa Apollonia auzorako itzulia egingo dute birritan eta herrigunetik ibiliko dira. Iurretako Hiri Proba birritan irabazi duen Cristina Petite atleta

**“Iurretako lasterketan modalitateko izarrekin batera korrika egiteko aukera egoten da”**

**Dortsalak bihar arratsaldean erretiratu daitezke, lurretako Goiuria kultur gunean**

ohia antolakuntzan dabil gaur egun eta parte hartzeko gonbita egin du. “Iurretako moduko lasterketan modalitateko izarrekin batera korrika egiteko aukera egoten da. Hori ez da gertatzen futboleant, saskibaloian eta bestelako kiroleant”, gogoratu du.

**Izen-ematea amaituta**

Maila guztien artean, 700 bat korrikalarik parte hartuko dute, eta jada amaitu da izen-ematea. Aurreko aldietan, egunean bertan ere uzten zuten izena ematen, baina aurten egun batzuk lehenago amaitzea erabaki dute, parte-hartze handiak gainez egin ez diezaienten eta antolaketak errazagoa izan dadin.

Dortsalak zapatuan erretiratu daitezke, lurretako Goiuria kultur gunean, 17:00etatik 20:00etara; baita egunean bertan ere, lasterketa bakoitza hasi baino ordubete lehenagora arte.

## LASTERKETA ORDUTEGIA

- 10:30; kadeteak eta gazteak.
- 10:50; benjamin aurrekoak eta benjaminak.
- 11:00; lasterketa paralinpikoa.
- 11:20; kimuak eta haur-kategoria.
- 11:30; umeen lasterketa.
- 12:10; elite, junior eta beteranoak eta lasterketa herrikoa.

**Adituaren txokoa**



Eneitz Iturriaga Mazaga  
Txirrindularitza

## Itzulia joan da, Bira badator

Euskal Herriko Itzuliagaz gozatu ahal izan dugu azken egunotan. Eguraldi ona, txarra, denetarik egin du, baina hori izan dira milaka eta milaka zale errepede bazterretan, txirrindulari denak animatzen. Berriz ere marea laranja ikusi dugu eta azpimarratzekoa da euskal afizioak duen bereizgarritasuna: berdin dela etxekoa izan edo ez, denak maila berean animatzen ditugu, denen ahalegina eta lana aintzates-tzen dugu.

Euskaldun batek irabazteko gogoarekin geratu gara. Azkenean esloveniarrak batek eraman du garaipena, erlojupekoan erakustaldia emanez. Aldapan gora ez zen onena, baina behar zenean haginak estutu ditu. Erakutsi du, bai, ez zuela liderraren elastikoa eransteko gogorik. Etxekoek, den-denek, oso paper ona egin dute eta berriz ere ilusioa ikusi dugu errepedeetan.

Itzulia amaitu da eta hila-bete barru, Emakumeen Bira daukagu, azkenean hainbeste bururatu eta gero, Women Word Tourreko puntuazioarekin eta baita etxeko nesken ilusioarekin ere. Horregatik dei egiten diet asteburuan errepedeetan egon diren denek, eman diezaietela euskal zalegoaren berotasuna emakume txirrindulariei ere.

Emakumeak profesionaltasun osoz eginahalak egiten ibiliko dira euskal errepedeetan, ibilbide gorabeheratsuei abiadura bizian aurre eginez. Dei egin gura diet hedabide denek ere, beste behin eman diezaioten merezi duen garrantzia eta oihartzuna gure etxeko lasterketari; eta bertan parte hartuko duten emakume denek.

**Abadiño**

**ZURE POLTSIKOARI BEGIRA!! PREZIOAK BEHEEEERA!**

**LASTER BARRI GEHIAKO ZURE INSTALAZIOETAN**

ABADIÑO UDAL IGERILEKUAK  
ASTOLA, Z/G - 48220  
ABADIÑO - BIZKAIA  
T. 94 620 29 29  
recepccion@piscinasabadiño.com  
abadino.kiroldegia  
@AbadiñoKiroldeg

**anboto.org MUGIKORREAN**

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.  
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.  
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.  
Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

**DESKARGATU DOAN!**





Goian, Kulturalako jokalariek igoera txanpainagaz ospatzen. Behean, Amorebietako gazteak, igoera eman zien garaipena lortu ostean.

## Kulturalak eskalatzen darrai eta Amorebieta gailurrera heldu da

Durangoko Kulturalako bigarren taldea Lehen Erregionalerara igo da; Amorebieta klubeko gazteak estatuko mailarik gorenean, Ohorezko Mailan, arituko dira 2018/19 denboraldian

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Kirol taldeen ligak azken txanpan sartu dira eta kurtso amaierako azterketen ordua da. Ikasle finek, etxeko lanak aurretik egin dituztenek, estuasun txikiagoak eta opor luzeagoak izango dituzte. Horixe da Durangoko Kulturalako bigarren taldearen eta Amorebieta klubeko gazteen egoera. Talde biak mailaz igo ziren joan zen asteburuan.

Bost jardunaldi falta dira Bigarren Erregionaleko liga amaitzeko, baina Durangoko Kulturalako bigarren taldeak ez du puntu

gehiagoren beharrik. Nagusi izan da liga osoan zehar. Bata bestearen atzetik 21 garaipen lortu dituzte. Arratiaren kontrako azkenengoak (1-0) igoera ospatzeko baliotza izan zuten joan zen asteburuan.

Bere ibilbide laburrean irabazterera ohituta dagoen taldea da. Bi

**Durangoko Kulturalak 21 garaipen lortu ditu bata bestearen atzetik Bigarren Erregionalean**

urtean beste hainbeste igoera lortu ditu. Datorren urtean erronka zailagoa izango du Lehenengo Erregionalean.

**Amorebietaren lorpena**

Amorebieta futbol klubeko gazteek handia egin dute. Estatuko Ohorezko Mailan jokatu dute hurrengo denboraldian, adin tarte horretan dagoen mailarik gorenean. Estatuko talderik onenekin lehiatu arituko dira. Joan zen asteburuan lortu zuten igoera, Zornotzako Txolon futbol-zelaian Loiola Indautxuri 6-0 irabazita.

## Lander Gallastegi elorriarra Espainiako txapelkun eskian

Eskiko jaitsieren txapelketa irabazi du gazteen mailan

**ESKIA • JOSEBA DERTEANO**

Lander Gallastegi eskiatzaile elorriarrak desgaitasun bisuala dutenen Espainiako Eski Txapelketa irabazi du gazteen mailan. Bigarren urtez jarraian lortu duen garaipena da.

Baqueiran (Aran Bailara, Pirinioak) jokatu zen txapelketa, apirilaren hasieran. Gidari batek lagunduta, ziztu bizian jaisten diren slalom modalitatean, Gallastegi izan zen denetan azkarrena. Joseba Gonzalez izan zen bere gi-

daria. Biharamunean beste proba batean parte hartu zuen, baina ez zuen zorterik izan. Jaitsierako une batean ibilbideko zulo batean trabatu eta jausi egin zen. Ez zuen minik hartu, baina lasterketatik kanpora geratu zen.

**Joseba Gonzalez gidariak lagunduta, Gallastegi azkarrena izan zen partaide denen artean**



Lander Gallastegi eta Joseba Gonzalez gidaria, podiumeko koskarik altuenean.

## Zornotza ST garaipen bila, Estela taldeari presioa sartzeko

**SASKIBALOA • J.D.**

Liga amaitzeko hiru jardunaldien faltan, EBA mailako bigarren tokian dago Zornotza saskibaloitza taldea. Igoera faseari begira, lehenengo geratzeak pribilegio batzuk ditu eta horren bila dabilta zornotzarrak. Kantabriako Estela talde

liderrari presioa sartzen jarraitu behar dute euren partidua irabazita. Hurrengo neurketa zapatuan izango du, 18:30ean, etxean, Donostiako Easo taldearen kontra.

Orain aste bi Estelari irabazita, lider jarri zen Zornotza. Multzoko oilar bien arteko neurketan gailenduta, zailena eginda zegoela zirudien, baina hurrengo astean galdu egin zuen askoz talde apalagoaren kontra, eta bigarren tokira jaitsi zen.

### Asteko kirolaria



**IRENE LOIZATE SARRIONANDIA**

**Durango, 1995**

**Irene Loizate azpitxapelkun geratu da Espainiako duatloi txapelketan, 23 urtez azpiko kategorian. Iaz po-**

## “Urrian Ibizan lehiatuko den Europako txapelketan parte hartzea eskaini didate”

Espainiako txapelketan egindako lan onak ekarri dio Europakoan parte hartzeko aukera

**diumaren atarian geratu zen, laugarren, eta aurten aurrerapausoa eman du. Bere errendimendua ez zaie oharkabean pasatu Espainiako selekzioko hautatzaileei.**

**Zelan joan zen lasterketa?**

Korrikako lehenengo itzuli biak aurrekoekin egitea lortuta, azkenengoan segundo batzuk galdu nituen. Ondoren, bizikletan ezin izan nintzen talde horretan sartu.

Lau laguneko talde bat nuen aurretik, eta horien aurretik beste bat zihoan ihes eginda. Atzetik zetorren bost laguneko taldera batu nintzen. Minutu erdi inguruko aldea zegoen talde bien artean. Bizikletatik jaitsi eta azkeneko korrikaldian distantzia gutxiegi zegoen aurrekoak harrapatzen saiatzeko. Azkenean, bederatzigarren amaitu nuen sailkapen orokorrean, eta bigarren nire mailan.

**Pozik emaitzagaz?**

Bai, pozik. Gainera, Espainiako selekzioko parte izatea eskaini didate Europako txapelketara joateko. Iaz ere parte hartu nuen eta, momentuz, joatea da asmoa. Urrian izango da, Ibizan. Espainiako txapelketako ibilbidearen bikoitza da Europakoa. Hain distantzia luzeetan ez naiz horren ondo moldatzen. Nahigo ditut laburragoak, baina gogoz prestatuko dut.

**Datozen astei begira, zer beste asmo duzu?**

Aurten Iruñeko Saltoki Trikideak taldean nabil eta aste bi barru Sorrian taldekako Espainiako txapelketan parte hartuko dugu. Postu on bat lortzea da helburua. Eta, horren ostean, triatloi denboraldiagaz hasiko gara. Getarian izango da lehenengo.

**Saltoki Trikideak taldean lehen urtea duzu. Pozik zabilta?**

Bai. Taldekiderik gehienak euskaldunak dira, ezagutzen ditut eta hartu-eman ona dugu. Espainiako txapelketetara joateko bidaiak eta hotelak taldeak kudeatzen ditu eta erraztasun horiengatik batu nintzen eurengana.



# anboto.iragarkilaburrak.com

|                  |                 |
|------------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK     | 5 IBILGAILUAK   |
| 2 TEKNOLOGIA     | 6 HARREMANAK    |
| 3 LANA/MEGOSIDAK | 7 ASIA/KIROLA   |
| 4 DENETARIK      | 8 FAMILIA/ETXEA |

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu: [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizita eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kortsultatu 94-621 79 02 telefonon.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### ETXEBIZITZAK SALDU

**Berriz.** Pisua salgai Berrizen, Margarita Maturana kalean. Bi logela, sukaldia eta egongela batera, komuna eta balkoia dituen etxabea. Trastelekua eta garajea barne, igogailuarekin. 116.000€. Tel.: 652752394

##### ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

**Durangaldea.** Etxe bila nabil Durangon edo lurretan. Posible bada hiru logelakoa. Tel.: 689-27 36 64

#### LOKALAK

##### LOKALAK ERRENTAN EMAN

**Abadifo.** Fruta-denda traspasatzen da Muntzaratzen. Tel.: 657-77 19 28

#### Lana Formakuntza

##### LAN ESKARIAK

##### LAN ESKARIAK OSTALARITZA

**Lan bila nabil garbiketan edo sukaldian.** Lan bila nabil taberna edo jatetxeetan garbiketa lanak egiten edo sukaldari laguntzaile moduan. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-47 78 53

##### LAN ESKARIAK ETXEKO LANAK

**Lan bila nabil etxeko lanak egiten.** Kanpoko langilea lan bila etxeko lanak egiten edo tabernetako garbiketa egiten. Baita pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ere. Tel.: 632-19 68 33

##### LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen edo eraikuntza lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduakako langilea. Tel.: 632- 11 45 93

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen zein ospitalean laguntzaile lanak egiten. Kanpoko zein barneko langilea orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 602-01 61 86

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko langilea, gauez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-89 17 09

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Neska gaztea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 664-13 91 94

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, barneko langile moduan. Tel.: 632-74 88 77

**Pertsonak zaintzen lan bila nabil.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein orduakako langilea. Tel.: 643-46 73 26

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Neska eskarmentuduna eta arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo orduakako langilea. Tel.: 643-13 01 35

**Andra euskalduna lan bila.** Andra euskalduna pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila dabil. Baita etxeko lanak egiten ere. Tel.: 659- 08 81 85

**Lan bila nabil etxeko lanak egiten.** Lan bila nabil etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzen. Goizez zein arratsaldez bi orduz lan egiteko prest. Tel.: 655-85 79 95

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632- 66 62 13 (Dalila)

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila dabilen barneko zein kanpoko langilea naiz. Tel.: 622-23 31 71

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Barneko zein kanpoko langilea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Tel.: 643- 47 46 15

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-54 03 31

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduakako langilea. Tel.: 612-57 63 87

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan bila nabil. Kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa langile moduan. Tel.: 628-78 93 50

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa

langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 682-18 12 74

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Barneko, kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa langilea. Erreferentzia onak ditut. Tel.: 602-11 70 84

**Pertsonak zaintzen lan bila nabil.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko, kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa langilea. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-11 98 45

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Jai egunetan zein goizetan. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 690-68 73 95

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 632-77 90 80

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 691-14 17 39

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko zein orduakako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-08 98 52

**Umeak zaintzen lan bila nabil.** Lan bila nabil umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Kanpoko zein orduakako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-72 50 54

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Kanpoko zein barneko langile moduan lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 688-86 79 74

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo orduakako langilea. Tel.: 612-49 53 96

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduakako langilea. Tel.: 612-57 63 87

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Mutila lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita atarietako garbiketa egiten ere. Barneko, kanpoko edo orduakako langile moduan. Eskarmentua eta

erreferentziak ditut. Tel.: 610067042

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, orduakako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 689-27 36 64

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Eskarmentudun neska lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduakako langilea. Tel.: 691-06 21 19

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 688-44 22 90

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauez, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea gauez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-63 01 44

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-11 03 94

**Umeak zaintzen lan bila nabil.** Kanpoko langilea lan bila dabil umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 632-83 16 10

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, gauez, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-76 21 47

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Gauez, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 722-21 38 29

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauez, goizez edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631 30 32 11

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-37 72 33

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.**

Eskarmentu eta erreferentziadun pertsona lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan ere. Kanpoko langilea, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-28 71 29

#### Kanpoko langilea lan bila.

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan, zerbitzari lanetan... lan bila nabil. Eskarmentua daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo gauez lan egiteko prest. Tel.: 619-20 69 37

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Orduka, asteburuetan edo gauez lan egiteko prest nago. Baita tabernetako garbiketa lanak egiteko ere. Tel.: 632-34 77 31

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Tel.: 744- 48 52 27

**Pertsona nagusiak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Baserrietara joateko prest, gidabaimena daukat eta. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 608-60 85 09

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 602-13 98 07

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 658-99 50 63

**Nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita etxeko lanetarako ere. Tel.: 688-43 03 80

**Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.** Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 664-89 92 27

#### Ibilgailuak

##### AUTOAK

##### AUTOAK SALDU

**Renault Trafic Combi 6 Laburra salgai.** Renault Trafic Combi 6 Laburra. Normala 1,9 - 100CV. 7.500 €. Camper bilakatutako furgoneta urdina salgai. Atzean bola eta bizikleta-euskarria ditu, lau bizikletentzat. Jabe bakarreko furgoneta da. Easy camp modeloko abantzia prezioan barne. Tel.: 605-72 32 37



## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



### GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera



Apirilaren 4an Oihanek 9 urte egin ebazan eta oso ondo pasatu genuen. Eskerrik asko, **Oihan**. Muxu handi-handi bat zure familiaren partez.



Zorionak, **Malen**. Etxeko guztion partez musu pilla eta besarkada handi ugari. Indar handiz egin beharko dozu putz 13 kandelak amatatzeko. Ondo pasa eguna.



Anbotoko sorgina aspaldi dakigu Berrizen bizi dala, eta apirilaren 16an urteak betetzen dauz. Aspaldian be burua galduta dabilela dirudien arren, nahiko neska jatorra da. Zorionak lagun txikitxo biren partez.



Domekan, hilaren 15ean, 15 urte. Zorionak, **Ruben**, familiaren eta lagunaren partez.



Gaur, apirilak 13, etxeko poxpolinak urteak betetzen ditu. Zorionak familiaren partez. Jarraitu horren jator eta parrandista izaten.



Apirilaren 7an, **Maddi** Jaio Lasuenek 7 urte bete zituen. Zorionak, poxpolin, Abadiño eta Oromiño familiaren partez! Jarraitu holako jator eta alaia izeten!

## Botikak

### BARIKUA, 13 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Murretatorre 2C - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA  
09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

### ZAPATUA, 14 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA  
09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

UNAMUNZAGA Murretatorre 2C - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - DURANGO

### JAIO-OLABARRIETA

Errekakale 6. - ELORRIO

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

### ASTELEHENA, 16 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

### MARTITZENA, 17 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

### EGUAZTENA, 18 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA

Montevideo etorb. 2. - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

### EGUENA, 19 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

## Eguraldia

BARIKUA ↓ 16° / 7°



ZAPATUA ↓ 16° / 6°



DOMEKA ↓ 22° / 6°



ASTELEHENA ↓ 17° / 10°



MARTITZENA ↓ 22° / 10°



EGUAZTENA ↓ 23° / 11°



EGUENA ↓ 26° / 12°



clínica dental hartzklinika  
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Murretatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP05: 145-13

Seguros  
Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com



# “Ibizara oporretan astebete egitera joan, eta hamar urtez geratu nintzen han”

Errigorak emandako sorta ekologikoa zozkatu zuen ANBOTOK, eta Itzi Mendiogarai izan da irabazlea. 30 urte inguruan sukaldari lanetan aritutakoa da zaldibartarra

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Sukaldeen, kazola, zartagin eta plater artean ikasi ditu sukaldaritzaren nondik norakoak Itzi Mendiogaraiak. Ekinen. Nautika ikasketak ditu eta urte batzuetan itsasoagatik ordezkatu zuen sukaldea, Ibizan (Balear Uharteak) bizi izan zen urte haietan. Orain, katerin arloan ari da, delicatessen produktuekin, Saltsanen.**

**Halabeharrez ala zaletasunez zara sukaldaria?**

Etxean beti izan dugu sukalderako zaletasuna. Ama sukaldaria izandako da, amama ere bai. Esango nuke umetatik ekin diogula sukaldeen, etxean: postreak egiten, laguntzen... Familia handia ere bagara eta sasoi batean bazen familia osoa elkartzeko ohitura handiagoa, mahaiaren bueltan. Baserrian bizita, mahaia beti izan da handia! Askokozinatzen zen.

**Zenbat urte daramatzazu sukaldeen lanean?**

30 bat, 18 urte nituenetik. Sukaldeen lan egiten ikasteko aukera izan nuen eta aurrera egin nuen. Dena den, ekinean ikasi dut kozinatzen, lan egiteagaz batera. Beti aritu naiz sukaldeen, itsaso kontuekin ibilitako urte batzuk kenduta.

**Itsasoan lan egindakoa zara, beraz?**

Bai. Orain 20 bat urte. Ibizara oporretan astebete egitera joan, eta hamar urtez geratu nintzen han. Aldaketa bat behar nuen eta nautika ikasketak egin nituen han. Itsasoan ibili nintzen, marinela, turismoagaz lotuta. Patroi ikasketak ere egin nituen, baina ez dut inoiz horretan jardun. Euskal Herrira bueltatzean, baina, ez nuen arlo horretan lanik topatu, eta sukaldaritzari ekin nion berriz. Etorri aurretik, Huescan ere bizi izan nintzen bizpahiru urte, eta Ibizara joan aurretik, Kanaria Uharteetan ere bai.

**Asko aldatu da sukaldaritzak?**

Orain 30 urteko sukaldaritzak eta egungoak ez dute zerikusirik. Lehengai berdinekin lan egiten dugu, garai bateko moduak mantentzen dira —betiko porrusalda edo bakailaoa pil-pil eran prestatuta, adibidez—, baina asko berriztu da sukaldaritzak.

**Modan dago?**

Ez nuke jakingo esaten. Berrizten joatea gauza bat da, eta moda kontua beste bat. Gainera, betiko sukaldaritzak hori hor dago, batak ez dio besteari lekua kentzen. Sasoi batean *La Nouvelle cuisine* zegoen denon ahotan. Orain, sukaldaritzak molekularra, eta halakoak egiten ere bagabil-

tza Saltsanen, eguenetan. Arrakasta handia du, gainera.

**Zer gurago du jendeak, betiko sukaldaritzak ala molekularra?**

Denetik dago, eta eskerrak! Durrangon badira pintxo kontuetan punta-puntan ari direnak ere, eta Eguen Saltsanen plater bereziak lantzen ditugu: aparragaz, haizeagaz... Danetarako jendea dago, eta eskertzekoa da. Sukaldaritzak ikastaroak daude modan. Umeekin egin izan ditugu, Saltsanen. Orain, mintzalaguna hasiko dugu.



**Sukaldeen esperimentatzea gustatzen zaizu?**

Bai horixe! Umetan eskolan egiten diren esperimentuak egitea bezalako da. Esku artean ditugun jakiekin gauza berriak sortzea polita da.

**Ordu asko sartzen dituzu sukaldeen?**

Lanean nagoenean, bai. Etxean ez dut ia kozinatzen. Ama aritzen da eta eskertzekoa da, benetan. Bestela, larregi da niretzat.

**Errementariaren etxean, zotza burduntzi.**

Ez dut esango ez dudala kozinatzen, baina, oso gutxi. Dena den, tokatzen denean gustura aritzen naiz.

**Orain, katerinean ari zara, delicatessen produktuekin ere bai. Baina Mesoi Berrian ere ibilia zara. Sukaldea bizitzeko mosu oso desberdinak.**

Bai, ez dute zerikusirik. Batez ere, dinamikak oso desberdinak dira. Mesoi Berrian, momentuan eskatzen dizuten horri begira egon behar duzu, zenbait gauza prestatuta izan arren. Eguaztenetik domekara, etenbakoa da lana. Astelehena eta martitzena lasaigoak dira, baina badago lana.

**Patata-tortilla da izarra. Hainbeste aterata, apur bat nazkatuko zinen. Egunak egoten dira! Baina, eskatuko ez balira, etxean egongo nintzen... Ibizan arroza kozinatzen nuen egunero. Leku bakoitzak berea zaintzen du.**

**Zein da ondoen egiten duzuna?**

Ez dakit... arraina, oro har. Jateko ere horixe dut gustukoena.

**Ondo kozinatzeko sekretua?**

Igual, egoste, frijitze edo gatz puntua lortzea. Gero, aukerak piloa dira, gero eta gehiago: saltsa, espezieak, barazkiak... gero eta gehiago ditugu eskura. Jatea gustatzea ere garrantzitsua da.

**Zer deritzozu Errigora ekime-nari?**

Oso ondo! Pentsatu izan dut ondo logokeela gure inguruan ere halako zerbaite sortzea. Neba ibilia da otzara ekologikoak saltzen, baina zaila da. Egonkortasun bat lortzeko aukera eman dezake.

**Itzi Mendiogarai Bastida**  
Sukaldaria  
Zaldibar | 1969

Lauhortza

Amaia Ugalde Begoña  
Kazetaria



**Buf! Paso**

Desordenatuta daukagu etxea, aztoratuta mundua; Trumpek misil ederrak ditu Siriara jaurtitzeko, politikariak ez dira lotsatzen curriculumean gezurrak esanda, astelehenero jubilatua pentzio duinak eskatzen dabil-tza, eta gazte batzuk hileak daroatzate kartzelan beste edozein lekutan borroka simple bat izan-gozen iskanbila baten erruz.

Mobilizatzeke arrazoi piloa daukagu, baina, ez dakit zuei gertatuko zaizuen; ni egoera honek anesthesiatu egiten nau batzuetan. Normala izango da; gure enpatiak badauzka mugak, zailagoa ei da zuzenean ukitzen ez gaituzten gaien alde edo kontra mugitzea.

Ederra litzateke enpatia garratua izango bagenu guztiok, herritar xumeongandik hasi, eta politikarienganaino. Orduan, ez 155ik, ez gerrarik, ez kartzela zigor injusturik, ez sexu erasorik... Eta horrelakoren bat dagoen bakoitzean, elkartasuna eta egurra iritzi publikotik! Eta ondorioak egon daitezela, mese-dez; egon daitezela dimisioak, isunak, zigorrak.

Baina bai, nik paso egiten dut batzuetan; injustiziek ez naute beti asaldatzen. Pentsatzen hasita, uneoro enpatiko ez izate hori defentsa mekanismoa ere bada; ezingo genuke hainbeste min jasan, beti munduarekin haserre. Baina, paso egiteko inertzia horretan ez jausten saiatu behar gara; ingurura begiratu eta gure zillborretik kanpo gertatzen dena entzuteko, ulertzen saiatzeko, geldi ez egoteko.

PD: Maiz entzuten dut belau-naldi gazteak mugitzea zaila dela, eta ezin dugu hori pentsatu: belau-naldi guztietan daude paso egiten dutenak eta mugitzen direnak. Entzun gazteei; euren irriketatik egingo dituzte euren borroka. Edozein adin da ona aldaketetan sinesteko.

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net

**ARE-MAKINA**

**ZULOAK EGITEKO MAKINA**

**ADAR BIRRINGAILUA**

**EZPALAK EGITEKO MAKINA**